

# Martxoak 31 zituen

1937ko martxoaren 31n faxistek Durangon eta Elorrion egindako sarraskia gogora ekarri, eta biktimak omenduko dituzte egunotan.



 **anboto**  
DURANGALDEKO  
ASTEKARIA

2019ko martxoaren 29a  
17. urtea | 757. alea

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)

**TOKIKOM**

IRATI EGUREN



## ALKI

BARNE DISEINUAK-en,  
bizi izateko espazioak  
sortzen ditugu.

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744





Elorrio ere hainbat eraikin kaltetu zituzten.



Durango, Andra Maria izan zen erasotzaileen jopuntu nagusietako bat.

## 1937ko martxoaren 31: Durango eta Elorrio hondamendi batek esnatu zituen eguna

Mola jeneralaren aginduz, Durango eta Elorrio bonbardatu zituzten militar italiarrek, eta 343 pertsona hil zituzten

### DURANGO • MARKEL ONAINDIA

"Ahatz dezagun suntsidura, oina-  
zea, tristura denik ere. Ez ukitu  
adreilu hautsiok, ez errauts epelok,  
ez odol itsaskor hau. Ez entzun  
sabai hondatu guzi hauen azpitik  
ailegatzan diren kexu eta biraoak,  
ez inondiko irrati irabazleren par-

tetik". Joseba Sarrionandiak *Ez gara  
geure baitakoak* liburuan Durangoko  
bonbardaketa oroitzeko idatzitako  
berbak dira, *Durango 1937* errelato  
poetikoaren hasierakoak. Hain zu-  
zen, askok ahaztu gura izan zuten  
terrorearen adierazle dira. Sarras-  
kia, mina, hondamena. Mola je-

neral kolpistaren aginduz, Italiako  
Aviazione Legionariako militarrek  
336 pertsona hil zituzten 1937ko  
martxoaren 31n Durango, 281

**Durango 336 pertsona  
hil zituzten 1937ko  
martxoaren 31n, 281  
bonba jaurtita**

bonba jaurtita eta jendea metrai-  
latuta. 229 etxe hondatu zituzten.  
Elorrio 7 lagun hil zituzten, 88  
bonba jaurtita, eta hainbat izan  
ziren kaltetutako eraikinak.

Urte luzez isildua, Gerediaga eta  
Durango 1936 elkarten ekimenez  
berreskuratu da nagusiki bon-  
bardaketaren memoria. Estatuen  
partetik oroimenik ez, justiziarik  
ez, erreparaziorik ez, barkamenik

ez. Argentinan zabaldu behar izan  
zuten ikertzeko prozedura. 2017ko  
uztailaren 18an, Durangoko Uda-  
lak aurkeztu zuen kereila herriko  
epaitegian, militar italiarrak bizi-  
rik ote dauden ezagutu eta epaitze-  
ko asmoz. Durangoko eta Bizkaiko  
auzitegiek atzera bota zuten, eta  
Auzitegi Konstituzionalean erre-  
kurritu zuten. Ez dituzte biktimak  
ahaztu, eta ez dituzte ahaztu gura.



## III. MEMORIA ASTEA • 2019 | ELORRIO •



Bisita gidatuak **TURISMO BULEGO**tik irtengo  
dira. Izena emateko e-posta helbideak eta  
telefonoak jarraian: 94.682.01.64 / 688.776.270  
info@elorrioturismo.eus

### Martxoak 26 • martitzena

#### HITZALDIA

#### MIKEL DIEGO BARAJAS

Gerra zibila eta lehenengo frankismoa  
Elorrio: Lehenengo Ekarpenak.

Iturri • 19:00 • Elebitan

### Martxoak 28 • eguna

#### HITZALDIA

#### EIDER DE DIOS FERNANDEZ

Emakumeak II. Errepublikan eta  
Frankismoan.

Iturri • 19:00 • Eus

### Martxoak 31 • domeka

#### EKITALDI PUBLIKOA

#### KANTALDIA

#### JULIA ITOIZ (LA CHULA POTRA)

Arriola kantoia • 12:00 • Elebitan

### Apirilak 2-14

#### ERAKUSKETA

Elorrioko Gerra Zibilaren Memoria

Iturri • 11:00-13:00 / 18:30-20:30

Elebitan

#### BISITA GIDATUAK

DBH 4ko ikasleekin

### Apirilak 6 • zapatua

#### BISITA GIDATUAK

DOAN

Turismo bulegoa • 11:00 • Eus

### Apirilak 11 • osteguna

#### HITZALDIA

#### IOSU IBARGUTXI

Memoria anti frankista, kereila  
argentinarra.

Iturri • 19:00 • Eus

### Apirilak 12 • barikua

#### BISITA GIDATUAK

DOAN

Turismo bulegoa • 18:30 • Es

### Apirilak 27 • zapatua

#### ANTZERKIA

#### LYCEUM CLUB

Espainian emakumeen interesen  
alde borroka egin zuen lehen klubari  
omenaldi xumea.

Arriola • 19:30 • Es



LEHIOR ELORRIAGA

**Mari Ardanza**  
**Azkarate**  
Bonbardaketaren  
lekukoa  
**Durango | 1927**

# “Enborrekin estalitako zanga bat egin genuen, eta hantxe babestu ginen bonbardaketatik”

Ardanzak bederatzi urtegaz bizi zan zuen Durangoko bonbardaketa. Hegazkinen motoreen zarata gogoan du oraindik ere. Run, run, run. Baxu zetozen, teilatuetatik oso hurbil

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

**Martxoaren 31 berezia izango da Mari Ardanzarentzat. Egun horretan Gerediaga elkarteak Andra Marian antolatuko duen ekitaldian lore eskaintza egingo du. Bestalde, Idoia Bediaga musikariak abestu egingo du ekitaldian. Amama eta iloba elkarri babesa ematen egongo dira.**

**Zelan gogoratzen duzu martxoaren 31ko Durangoko bonbardaketa?**  
Bederatzi urte nituen. Gu San Faustoko baserri batean bizi ginen. Etxean geunden eta hegazkinen zarata entzun genuen. Run run run. Burrundara handia ateratzen zuten. Enborrekin estalitako zanga bat eginda genuen, eta hantxe babestu ginen bonbardaketatik. Nahikoa denbora pasatu genuen han, hegazkinak joan eta isiltasuna

“

**Bagenekien bonbekin zetoze la, hori komentatzen baitzen. Otxandiokoa aurretik gertatu zen eta”**

■

nagusitu arte. Oso baxu zebiltzan hegazkinak. Teilatuetatik oso hurbil zebiltzala ikusi genuen.  
**Hegazkinak agertu zirenean, pentsatu zenuten horrelako zer edo zer gerta zitekeela?**  
Bagenekien bonbekin zetoze la, hori komentatzen baitzen. Otxandiokoa aurretik gertatu zen eta.  
**Txikia zinen arren, gogoratzen duzu zer sentitu zenuen?**  
Beldurgarria izan zen.  
**Behin bonbardaketa amaituta, zer egin zenuten?**  
Ezkutatu ginen zanga oso gertu zegoen etxetik, eta berehala sartu ginen etxean.  
**Zelan gogoratzen duzu gerra?**  
Gogoan dut soldaduak baserriaren ondoan kanpatzen zirela. Atartean ere sartzen zitzaizkigun.  
**Eta gerraostea?**  
Gogorra izan zen, baina gurasoek gehiago bizi izan zuten hori, gu umeak ginen eta. Guri ez zitzaigun janaririk falta izan, baserrian bizi izanda irina geneukalako; baita ortuko jeneroa ere. Baina jendeak gosea pasatu zuen.  
**Martxoaren 31n lore eskaintza egingo duzu.**

Harrituta gelditu nintzen. Idoia ilobak abestu egingo duenez, babes horregaz joanda baiezkoa eman dut. Emozionantea izango da.  
**Hil edo zauritu zitzaizuen ingurukoren bat bonbardaketan?**  
Gure familian, ez, baina atzeko baserrian zauritu bat egon zen. Solauneko Raimunda metrailagaz zauritu zuten, hanketan.  
**Urte askoan ez da berbarik egin bonbardaketari buruz. Zuen etxean ere isiltasun hori nabaritu duzu?**  
Nire familian ez zen horretaz berba egiten, ezta gerrari buruz ere. Gertatu egin zen, eta han gelditu zen.

“  
**Gogoan dut soldaduak baserriaren ondoan kanpatzen zirela. Atartean ere sartzen zitzaizkigun ”**

■

“

**Idoia ilobak abestu egingo duenez, babes horregaz joanda baiezkoa eman dut”**

■



DURANGO • A.M. / M.O.

Orain 82 urteko sarraskia gogoratzeko ekitaldiak udalaren eta Gerediaga elkartearen eskutik garatuko dira Durangon. Nabarmentzekoa da argazki zaharren erakusketa bat martxan dagoela astelehenetik. *Irudi izoztuak vs Izoztutako oroimenak* deitzen da erakusketa eta apirilaren 3ra arte iraungo du. Urte luzez sarraskiari buruz berbarik egin ez zenez, isildutako bonbardaketa lez izendatu dute. Hain zuzen, atzo, *Durango, isildutako bonbardaketa* dokumentala proiektatu zuten Zugaza zinema-aretoan.

**Bihar, 19:00etan, 'Gerra hemen hasten da' filma emango dute San Agustinen**

Bihar, bonbardaketaren biktimen aldeko *Oroimen gunea* jarriko dute Andra Mariko elizpean. Goizean, ibilbide gidatuen bidez informatuko dute, eta, 19:00etan, *Gerra hemen hasten da* filma emango dute San Agustinen, Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak antolatuta.

**Mari Ardanzaaren eskaintza**

Zelan ez, domekan izango dira ekitaldirik garrantzitsuenak, martxoaren 31n. Iazko moldaketagaz

## "Irudi izoztuen" argazki erakusketa ikusgai ipini dute, Durangoko Andra Marian

Ekitaldi instituzionala Benita Uribarrena parkean izango da, eta Gerediagak eta Kriskitinek prestatutakoa, Andra Marian



Gerediaga elkarteak Arantza Atutxa eta Aitziber Irigoras alkatea, ekitaldien berri ematen.

bat eginda, ekitaldi instituzionala Benita Uribarrena parkean egingo dute (12:00), hilerrian barik. 20:00etan, Gerediagak eta Kriskitinek elkarlanean prestatutako ekitaldiaren txanda izango da, eta,

bertan, Mari Ardanza lekukoak lore eskaintza egingo du.

Egitarauan parte hartu duten elkarteek "memoriagaz eta durangarrekin erakutsi duten konpromisoa" eskertu du udalak.

## Arriolan ekitaldi bat egingo dute, Elorrioko erasoaldia gogoratzeko

Laumunarrieta elkarteak eta udalak III. Memoriaren Astea antolatu dute elkarlanean



Laumunarrieta elkarteak eta Txus Arrieta zinegotzia (ezkerretik bigarrena), ekitaldien aurkezpenean.

ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

Laumunarrieta Memoria Elkar- teak eta Elorrioko Udalak III. Memoria Astea antolatu dute elkarlanean. Ekitaldi nagusia martxoaren 31n egingo dute, Elorrio bonbardatu zutela 82 urte betetzen diren egunean. Arriolako kantoian izango da, 12:00etan. Besteak beste, Julia Itoiz (*La Chula Potra*) musikariak kantaldia eskainiko du eta, egural-

diak laguntzen badu, *photocall* bat egongo da argazkiak ateratzeko.

Asteon hasi dira ekitaldiak, berbaldiekin, eta Josu Ibargutxirena da hurrengoa, apirilaren 11n. Hilaren 2tik 14ra Iturrin egongo den argazki erakusketak gerra zibilak Elorrioren izan zuen eragina jasoko du. Gainera, bisita gidatuak eskainiko dituzte, 6an eta 12an. Hilaren 27an, estatuko emakume intelekt-

tualen lehen kluba omentzen duen *Lyceum Club* antzezlanak ikusi ahal- ko da. Pilar Zubiaurre garaitarra izan zen protagonistetako bat.

**"Erreparazio integrala"**

Txus Arrieta zinegotziak Memoriaren Legea aldarrikatu du. "Urrats hori ematea oinarritzkoa da frankismo garaiko biktimei erreparazio integrala emateko".

## TABIRA

Telesforo Monzon idazle eta politikariak *Tabira* izeneko poema argitaratu zuen *Gudarien Egiñak* liburuan, 1947an. Eusko Jaurlaritzako kide izan zenez, 1937tik ihes eginda zegoen, eta Lapurdin kaleratu zuen liburua. Durangoko bonbardaketari buruz idatzitako euskarazko lehen poema izan zen *Tabira*.

Euskalerrian, goizean goiz irtetzen  
langilleak lanera,  
euliak bezalaxe dirala agertzen  
andrak eleiza aldera.  
Menditik bera neskatzala alai gazte  
datoz errira astogain,  
gaztain, arrautza, barazki ta esne  
dakarzkite salgai.

Goiz baten Tabirak, esnatzean,  
txori beltzak zituan ortzian.  
Urbiltzen ari zala aien otsa,  
erriak bere gain eriotza!  
Etxeak datoz goitik bera  
—arri ta gorputzak batera—  
zaborretan ager ditugu  
zango ta bular beso ta buru

Eleizan kristauak otoitzean:  
Sapaia yausi ta arrapa azpian!  
Apaiz zartxo bat da mezalari  
Yauna eskuan dula ilda yausi!  
Ta Yainkoaren Odol Bera  
ixuri zitzaigun lurrera...  
Onelaxe dala bat egin  
aren Odol Erriarenakin!

Erriak:

Dantza ta Guda mendi goietan...  
Aupa mutillak! Aurrera!  
Bakea baitegu biotzetan,  
ez degu iltzeko beldurra!  
Euskalerriko mutil gazteak,  
—Aingeru, naiz ta Gudari—  
gorroto gabe yausiak dira  
mendigoietan kantari.





281  
BONBA

# MARTXOAK 31 DURANGOKO BONBARDATZEAK OROITUZ 1937-2019

205  
ETXE HONDATUAK

336  
HILDAKO



ARGAZKI ERAKUSKETA:  
"IRUDI IZOZTUAK  
VS IZOZTUTAKO OROIMENAK"

**MARTXOAREN 25etik  
APIRILAREN 23ra**

Gerediaga Elkartea  
ANDRA MARIA INGURUAN

MARTXOAK  
28

"BONBARDAKETAREN  
AZTARNAK" BIDEOA

9:30-12:30

ANDRA MARIAKO KAPERAN

TAILER PARTE-HARTZAILEA  
BONBARDAKETA OROITUZ

Lehen Hezkuntzako ikasleak  
ANDRA MARIAKO ELIZPEAN

ZINE EMANALDIA  
"DURANGO, ISILDUTAKO  
BONBARDAKETA"  
Egileekin solasaldia bukaeran

18:00 20:00  
Gaztelaniaz Euskaraz

Gerediaga Elkartea  
ZUGAZA ZINEMAN

MARTXOAK  
29

IRRATI TAILERRA  
Ikastetxeetako ikasleak

11:00  
Durango Irratia (FM 107.8)  
BIZENTA MOGEL BIBLIOTEKAN

MARTXOAK  
30

BONBARDAKETAREN  
BIKTIMEN OROIMEN GUNEA

11:00-19:00  
ANDRA MARIAKO ELIZPEAN

IBILBIDE GIDATUA:  
"BONBARDAKETAREN  
AZTARNAK"

Estereoskopioekin egiteko bisita.  
Bonbardaketak eragindako suntsiketaren  
irudiak ikusteko aukera emango digu  
bisita honek.

Izen ematea: [gerediaga@gerediaga.eus](mailto:gerediaga@gerediaga.eus)  
T. 94 681 80 66

Leku kopuru mugatua

Gerediaga Elkartea  
TOPALEKUA: KURUTZESANTU MUSEOAN

11:00

Gaztelaniaz

12:30

Euskaraz

"GERRA HEMEN  
HASTEN DA"  
DOKUMENTALAREN  
AURKEZPENA ETA  
PROIEKZIOA

19:00

Egileekin solasaldia bukaeran

Ongi Etorri Errefuxiatuak  
SAN AGUSTIN KULTUR GUNEAN

MARTXOAK  
31

1. AIRE-ERASOAREN  
ALARMA-HOTSA JOTZEA

8:30

ANDRA MARIAKO KANPANDORREAN

BONBARDAKETAREN  
BIKTIMEN OMENEZ  
LORA ESKAINTZA  
KANPOSANTUAN

8:30

HILERRIAN

GERRA ZIBILAREN  
BIKTIMEI OROIMEN  
EKITALDIA

12:00

Lora eskaintza, ohorezko aurrekua  
eta Doinu Zahar Abesbatza

BENITA URIBARRENAREN PARKEAN

2. AIRE-ERASOAREN  
ALARMA-HOTSA JOTZEA

17:45

ANDRA MARIAKO KANPANDORREAN

BONBARDAKETAN  
HILDAKOEI OROIMEN  
EKITALDIA

20:00

Lore eskaintza, kantua: Idoia Bediaga eta  
bideo laburra "Aztarnak"

Gerediaga Elkartea eta  
Kriskitin Dantza Taldea

ANDRA MARIAKO ELIZPEAN

APIRILAK  
7

BOOK TRAILER  
LEHIAKETAREN  
SARI BANAKETA

11:30

Ikastetxeetako ikasleak  
PLATERUENA KAFE ANTZOKIAN



# “Elorrion errepresioa jasandako 173 lagun zerrendatu ditut, momentuz”

Gerra zibilean eta frankismoaren lehen hamarraldian 80 bat elorriar hil zirela egiaztatu du Mikel Diego historialariak

ELORRIO • MARKEL ONAINDIA

**Laumunarrieta elkartearen eta udalaren beka bati esker, Elorrioko memoria historikoa osatzen dabil Mikel Diego. Momentuz, 1936-1945 aldikoa. Errepresioa jasandako pertsona horiei aurpegia ipintzea izango da hurrengo lana. Durangoko Azokarako liburu bat argitaratu gura dute.**

**Orain arte, berba gutxi egin izan da Elorrioko bonbardaketaz.**

Durangokoan jende gehiago hil zenez, Elorriokoa eklipsatua izan da horregatik, nahiz eta bonbardaketa garrantzitsua izan. Baina, martxoaren 31ko Elorrioko bonbardaketa horrek berak ere herriko beste bonbardaketa batzuk eklipsatu zituen. Adibidez, azaroaren 12an pertsona bi hil zituzten faxistek botatako bonbek. Elorrio frontean egonda, bonbardaketa gehiago ere jaso zituen. Hamar bat izan ziren guztira. Martxoaren 31n zazpi lagun hil ziren, eta beste bonbardaketetan, beste bost. Gainera, zortzi elorriar ere hil ziren beste herrietan gertatutako bonbardaketetan. Durangon, Bermeon, Karrantzan, Lezaman, Eibarren...

**Martxoaren 31koaz datu berririk jaso duzu? Zer dakigu horretaz?**

Datu oso kurioso bat agertu da. Euskal kulturen pertsona oso famatua zen zinemagile bat egun horretan Elorrion zegoela jakin dugu, baina oraindik baieztapena falta zait. Bestelakoan, orain arte jakinikoa. Bonbardaketa bi izan ziren egun berean; bata goizean, 08:30ean, eta bestea arratsaldean, 17:00etan. Italiako abazio legionariakoak izan ziren erasotzaileak, 24. bonbardaketa taldeko 213 eskuadrillakoak. Eraikin piloa kaltetu zituzten, eta bat guztiz bota behar izan zuten. Berrio Otxoa kalean ere aztarnak ikusi daitezke oraindik. **Zergatik uste duzu bonbardatu zutela Elorrio?**

Frontearen lerroa hor geratu zen, irail amaieran, eta ez zen apirilaren 1era arte berriro mugitu,

Durangoko eta Elorrioko bonbardaketen ostean. Han zeudela, gerra berriro hasiko zela eta espero behar zutena horixe zela ohartarazteko modu bat izan zitekeen. Distrakziorako maniobra bat ere bai, edo gerrarako esperimendu bat, Gernikan bezala. Badakigu Wolfram von Richthofen, Alemaniako Kondor Legioko burua, Elorrion egon zela egun batzuk geroago, bonbardaketaren ondorioak ikusteko. Faktore asko egon daitezke. Hala ere, nire ikerketa errepresaliatuen arloan kokatu dut, ez gerraren sinbologian.

**1936 eta 1945 artean bizi izandako errepresioa aztertzen zabilza. 75 hildako egon zirela aipatzen zenuen ikerketa hasi berritan.**

Orain 80 bat hildako ditut zenbata. Elorrioko bonbardaketetan, 12; beste herrietako bonbardaketetan, 8; errepublikazaleen errepresioagatik, 14; errepublikazaleztat aurkeztu ziren frankisten eskutik, 2; gudariak, 24; frankistekin batera borroka egin zutenak, 8; bandoa izendatu ezin izan zaienak, 5; bonba bat aurkituta hil zen ume 1; bala galdu batek hil zuen pertsona nagusi 1; langile batailoietan hildako 1; eta kartzelan hildako abade 1.

**Hildakoez aparte, errepresioa jasan zuten zenbat elorriar egon ziren?**

Herrian errepresioa jasandako 173 lagun zerrendatu ditut, momentuz. Langile batailoietan, 14; auziperatuak edo kartzelaratuak, 78; ondasunen konfiskazioa ezarritako 69; udalean

“

**Martxoaren 31n zazpi elorriar hil ziren, eta beste bonbardaketetan, beste bost”**

■



**Mikel Diego Barajas**  
Historialaria

**Bilbo | 1985**

zigorrak jasotako 14 langile; eta horietatik lana galdutako 7.

**Askok ihes egin behar izan zuten.**

Frontea jausten hasi zenean, errefuxiatuen babesgune bilakatu zen Elorrio, Arrasatetik eta Elgetatik gertu zegoelako. 1936ko abendu amaieran 2.131 errefuxiatu zeuden bertan, 3.000 biztanle inguruko herri batean. Horri gudari batailoiak gehitzen badizkiogu, kanpotarrak gehiago zirela ikusiko dugu. Baina momentu bat heldu zen Elorrio ez zena leku segurua, eta jendea bizia galtzeko beldur zen; umeengatik bereziki. Gutxienez Elorrioko 33 ume atzerrira bidaltzea ekarri zuen horrek, Frantziara eta Ingalaterrara nagusiki. Bestalde, lau ume Frantziara eta gero Kataluniara ihes egin

zuten euren familiekin batera, itsasontziz. Umeekin amak egon izana ere oso posible da. Katalunia jausi zenean exilioa hasi zen, eta badakigu gutxienez hiru elorriar Gurseko [Frantzia] kontzentrazio-esparruan egon zirela.

“

**Gutxienez Elorrioko 33 ume atzerrira bidaltzea ekarri zuen, Frantziara eta Ingalaterrara nagusiki”**

■

**Emakumeek sufritutako errepresioa bikoitza izan zen.**

Errazagoa da gizonen datuak topatzea, armak hartu zituztelako. Emakumeen errepresioa desberdina zen, eta zailagoa jasotzeko. Auzipetuak gutxi izan ziren, herriko bizitzan nabarmendu zirenak, Emakumeen Abertzale Batzakoak edo Elorrioko Kasino Errepublikarrekoak, adibidez. Baina konfiskazio kasuetan emakumeen aurka joan ziren, gizonak topatzen ez zituztelako, eta emakumeen izen pilo bat agertzen da. Ilea moztu ostean herritik paseatutako emakumeen testigantzarik ez daukagu. Noski, hori ez zuen inork kontatzen, bortxaketa kasuak lez. Isildutako eta isilpeko errepresio bat zen, ebidentzia dokumentalik uzten ez zuena.



# “Ez dugu arazorik akordioen inguruan edozeinegaz berba egiteko, VOXegaz salbu”

EAJgaz udal gobernuan egon da PSE-EE legealdi honetan eta, hurrengorako, akordioetarako aukerak zabaldu ditu Ruizek



**Jesica Ruiz Perez**  
PSE-EEren  
alkategaia  
**Durango | 1984**

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

**PSE-EEen zazpi urtez militatu ostean, alkategai izateko arduran estreinatuko da Jesica Ruiz kimikaria. Euskaraz erantzun die ANBOTOren galderei.**

**Zerk bultzatu zaitu alkategai izateko erabakia hartzera?**

Azken urteetan gure alderdian mugimendu ugari egon dira. Gaur egun Pilar Rios da gure irudia, eta urte asko daramatzanez udalean, irudia berriztu behar genuela on-dorioztatu genuen. Orduan, barne mailan, ni alkategai aurkezteko esaten hasi zitzaidan jendea. Hasiera batean, beldurra sentitu nuen; izan ere, politika gustatzen zait,

baina nire lana beste bat da. Azkenean, ondo pentsatu eta aurrera egin nuen. Motibatuta nago, eta uste dut ezin dela bestela izan.

**Orain lau urte zinegotzi bat galdu zuen PSE-EEK. Bi lortu zituen. Zer emaitza espero duzue oraingoan?**

Inkestek zinegotzi bi ematen dizkigute, eta bi edo hiru espero ditugu. Ez dakigu ezer ofizialik, baina Durangon VOX aurkeztu daitekeela entzun dugu eta, horrela bada, gure esperantza da PPren botoa zatitzea eta biak kanpoan geratzea, guk irabaziko genukeen zinegotzi baten mesedetan. Bestalde, Espainiako hauteskundeak ondo badoazkigu, guretzat ere ona izango dela uste dugu.

**Amaitzeaz den legealdian, EAJgaz batera udal gobernuan egon da PSE-EE. Hauteskundeetako emaitzen arabera, gobernu osatzeko akordio horri eusteko asmoa duzue?**

Lehenengo, emaitzak ikusi behar ditugu. Ni ez nintzateke oso eroso egongo akordio itxi eta zehatz batez, baina gauza puntualetan, bai. Ez nabil soilik EAJri buruz. Guk ez dugu inolako arazorik akordioen inguruan edozeinegaz jesarri eta berba egiteko, VOXegaz salbu. Gobernu bat beharrezkoa da, eta gobernatzea espero dugu. **Zer proiektu dituzue lehentasunen artean datorren legealdirako?**

Alde batetik, Durangon industria aldetik zerbait egin daitekeela

uste dugu. Durango zerbitzu herri bat da eta horri eutsi behar diogu, baina gero eta lantegi gutxiago daudela ikusten dugu. Eguzkitzan erabilera industrialerako lurzoru bat sailkatuta dago, eta Urki-Hegoalde saihesbidea bertatik pasatuko da. Proiektu berritzaileak dituzten gazteei laguntza eman behar diegu udaletik. Gainera, udalean gazteentzako zerbitzuak hobetzea proposatzen dugu.

**Iaz, indarkeria matxistagaz lotutako 83 kasu aztertu zituen Amankomunazgoak, eta Durangon 41 salaketa egon ziren. Zer proposamen duzue arlo garrantzitsu honetarako?**

Uste dugu Durangon laguntza onak daudela. Pilar Riosek oso lan

ona egin du. Emakumeak babes-tuta sentitzen dira eta zerbait gertatzen denean salatu egiten dute. Hala ere, erasoak daudenean, tratua pertsonala hobetu behar dugula uste dugu. Bestalde, hezkuntza da oinarria, eta hortik hasi behar dugu. Gauza askotan atzera egiten ari gara.

**PSE-EEK zerrendaburu euskalduna izango du zugaz.**

Euskaraldian ahobizi izan nintzen. Egunerokoan ezin izaten dut asko erabili, lagunekin noizbehinka bai. Euskara bultzatu behar dela? Noski. Ezin dut ulertu gaur egun gazte batek euskaraz ez jakitea. Euskara ezin dugu galdu.

“

**Estazioko obra osoa gelditzea ez dugu ondo ikusten, milaka metro karratu ezer egin barik geratuko direlako denbora luzez”**

**Estazioko planaren gaia pil-pilean dago. Plana berregokitzearen alde agertu zineten zuek.**

Gaur egun Durangok ez ditu behar 18 pisuko 5 etxe dorre. Gainera, erdialdean autoen trafikoa ugari-tuko luke. Etxe batzuk egin daitezke; kontuan izan behar dugu ETSk diru asko gastatu zuela tren-lurperatzen, eta hori ona izan zela Durangorentzat. Gure ustez, eremu horretan autobus geltokia ere egin daiteke, eta zerbitzu publikoak batzeko eraikin bat ere bai. Anfiteatro bat, parkea... Hala ere, herritarrek erabakitzearen alde gaude.

**Beraz, galdeketaaren alde zaudete.**

Bai. Baina arin egiteak ez du balio, gero atzera bota ahal dutelako. Galdeketa loteslea izan dadin, legearen bermeagaz egin behar da.

**Kontsulta egin bitartean obra etetearen alde bozkatu zuen Mauricio Garcia zinegotzi sozialistak. Iritzi berekoa zara?**

Obra osoa gelditzea ez dugu ondo ikusten, milaka metro karratu ezer egin barik geratuko direlako denbora luzez. Momentuz, parke bat egin dezakegu. Hori bai, etxeak eraikitzen hasterik ez dugu gura.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2019ko martxoaren 29a  
17. urtea - 757. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasesumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

2015 **Bikam**  
Bikam  
Bikam

PEFC  
www.pefc.es

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Galdeketaren aldeko lehen manifestazioa egingo dute gaur Durangon, Erabakik deituta

Erabaki plataforma: "Hilabeteak pasatu arren, ez dugu ikusten galdeketa aurrera egiten duenik. Oztopoek, oster, bai"



Estazioko eremuan, geltoki berriaren sarreran eskaini zuten manifestazioa iragartzeko prentsurrekoa, astelehenean.

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

"Sortutako ezinegona agerian jarri eta herritarrok erakundeekiko hartu-emanen ditugun eskubideak kaleetan aldarrikatzeko unea heldu da". Berba horiekin kokatu du Erabaki plataformak gaurko iragarritako manifestazioa. Estazioko planari buruzko herri galdeketa alderdiaren aldeko lehen manifestazioa izango da. 19:00etan hasiko da, Andra Marian; hainbat kale zeharkatuko ditu, tartean estazioko eremua ere bai, eta udaletxean amaituko da. Astelehenean egin zuten aurkezpene, zenbait herritarren babesagaz. Asteazkenean, manifestazioagaz hainbat lagunek bat egin dute, tartean ezagunak ere

bai: Eneko Sagardoyk, Igor Elortzak eta Unai Iturriagak, adibidez.

Erabaki plataformatik salatu dute euren ustez "galdeketa atzeratzeko" asmoa duela udal gobernuak. "Hilabeteak pasatu arren, ez dugu ikusten galdeketa aurrera egiten duenik. Oztopoek, oster, bai. Legean edozein zirikitu erabiltzen ari dira prozesua geldiarazteko orduan", esan dute gaurko prentsurrekoan. Udalarentzat parte hartzea "hitz hutsa besterik ez dela" begitantzen zaie. "Nahiz eta herritarrek parte hartzea eskatu duten, iluntasuna, erdi egiak, amarru legalak eta 20 minutuko batzordeak baino ez dizkigu ekarri herrian inoiz izan den obrarik handienak".

Horrela, kalera irteteko beharra ikusi dute plataforma osatzen dutenek, eta mobilizaziorako deia egin dute.

## 3.000 sinadura lortuta

Iaz sortu zenetik, estazioko planari buruz galdeketa eskatzen ibili da Erabaki, eta galdeketa bera gauzatu ahal izateko, 3.000 sinadura inguru entregatu zituen udaletxean, uztailetik urrira bitartean.

Udalak tramitera onartu du kontsulta egitea, eta batzorde berezi bat martxan ipini duen arren, oraindik ez dago galdeketa datarik. Gainera, Jaurilaritzaren planak aurrera darrai, udalbatzak obrak etetea onartu zuen arren.

## Babes politikoa

Manifestazioak EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen babes

**Ezagunak ere bat egin dute: Eneko Sagardoyk, Igor Elortzak eta Unai Iturriagak, adibidez**

du. EH Bilduk ibilbide orri bat ere proposatu du: obra gelditzea eta galdeketa "ahalik eta azkarren" egitea. Kontsultan, parke handi bat egitea defendatuko luke, *Martxoaren 31* deiturikoa, bonbardaketaren biktimen omenez.

## Aitziber Coello preso "lehenbailehen" askatzea eskatu du Durangoko Udalak

### DURANGO • M.O.

Aitziber Coello Onaindia durangarrak 15 urte daramatza preso kartzelan, lehen graduan. Frantzia zigorra osorik eta Espainian hiru laurdenak beteta, "lehenbailehen" askatzea eskatu zuten bere senide eta lagunak martitzeneko osoko bilkuran, legedia aintzat hartuta.

Coellorena kasu berezia da. 16 hileko ume batez bizi da. Asier Aginako senarra urtarrian askatu zuten, gaixotasun larri baten eraginez. Hirurek batera egoteko eskubidea dutela uste dute senideek. Mozioa EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak babestu zuten. EAJ abstenitu egin zen, eta PSE-EEk aurka bozkatu zuen (PP ez zen egin).

## Zengotitabengoa, libre

Bestalde, Andoni Zengotitabengoa elorriarra libre geratu zen, atzo bertan. 2010etik Lisboako (Portugal) kartzelan zegoen, eta urtebete falta zitzaion zigorra osorik betetzeko. Errebisioa eginga, libre uztea erabaki dute.



## Errefuxiatuen aldeko besarkada kolektiboa egingo dute maiatzaren 5ean

### DURANGO • M.O.

Errefuxiatuen alde ekimen bat egingo dute Europan, maiatzaren 5ean, eta Euskal Herriko mobilizaziorako Durango hautatu dute. Ezkurdin hasiko da, 12:00etan, eta lau zutabetan banatuko da. Gero, Landako Gunean besarkada kolektibo bat gauzatuko dute. "Elkar besarkatuko dugu, neofaxismoaren aurrean duintasunezko bizitzaren eta migratzeko eskubidearen alde", azaldu zuten aurkezpenean. Izan ere, "arduratuta" daude azkenaldian arlo politikoan agertutako diskurtso "xenofobo, atzerakoi eta antifeministekin". Iaz Mediterraneoan 2.262 pertsona hil zirela ohartarazi dute.

# Herriaren Eskubideak helegitea ipini du, estazioko proiektua gelditzeko asmoz

Riosen alderdiak dio "irregulartasunak" topatu dituztela etxe dorreen planean



Herriaren Eskubideko zenbait kide, helegitearen berri emateko prentsurrekoan.

Herriaren Eskubideak auzitara eramane du bost dorreen eraikuntza baimenduko duen plana. Joan zen astean emandako prentsurrekoan jakitera eman zuten, planean "irregulartasunak" topatu dituzte, Durangoko Udalari "kalte ekonomikoak" sortu ahal dizkietenak. Urtarrilaren 28an aurkeztu zuten helegitea.

Gobernu taldeagaz kritiko agertu ziren prentsurrekoan. "EAJk eta PSE-EEk ez dute boron-

date politikorik proiektu hau geldiarazteko, ez dute borondate politikorik herritarrei hitza emateko", adierazi zuten. Gobernu taldeak ez du proiektua eten, udalbatzak galdeketa egin arte hori adostu arren. Horregatik, proiektua gelditzea helegitea jarrita bakarrik lortu daitekeela uste dute Herriaren Eskubidekoek.

Eteteak proiektua berriro idazteko eta herriaren beharretara egokitzeko aukera ekarriko lukeela esan zuen Julian Riosek. "Legeak dio prozesua berriro hasiko balitz parte hartze prozesu bat egotea derrigorra dela. Beraz, herritarrek erabaki ahal izango lukete zer gura duten egin 62.000 metro karratu horietan", esan zuten.



# Durangaldean elikadura eta turismo iraunkorrek sustatzeko plan estrategikoak aurkeztu dituzte

Urkiola Landa Garapen Alkartearen eskutik sortu dituzte planak; 'D' letra izango da aurrera begira eskualderako hautatutako marka edo ikurra, eta 'Durangaldea, izaera' berbak erabiliko dituzte sustapenerako lema moduan



Ordezkarri politikoen eta eragileen aurrean aurkeztu zituzten planak, atzo.

## DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Urkiola Landa Garapen Alkartearen eskutik, Durangaldean elikadura eta turismo iraunkorrek sustatzeko plan estrategikoak aurkeztu zituzten, atzo, Berrizko Kultur Etxean. Gaindegia erakundeak, Elhuyar aholkularitzak eta Akimu enpresak lagundu dute planak osatzten, eta Sorland agentziak marka zein irudiak landu ditu. D letra izango da ikurra, eta Durangaldea, izaera lema erabiliko dute sustapenerako.

Mañariko alkate den Endika Jaiok egin zuen berba Urkiola Landa Garapen Alkartearen izenean, eta adierazi zuen diseinatu duten elikadura plana "aitzindaria" dela. Gaindegiko Imanol Esnaolak azaldu zuen elikadura kulturaren eragitea izango dela lehenengo lan ardatza.

Bere esanetan, sozializazioaz gain beharrezkoa izango da distribuzio sareak sortzea, eskoletara bertako produktuak eraman behar badira, adibidez. Lurrak ekoizpenerako gordetzea ere ildo bat izango da.

**Endika Jaiok adierazi zuen diseinatu duten elikadura plana "aitzindaria" dela**

**Durangaldean helmuga turistikoak eraikitzea da helburu nagusia, 2023 jomuga hartuta**

Turismoari dagokionez, Kati Simon alkarteko teknikariak esplikatu zuen Durangaldean helmuga turistikoak eraikitzea dela helburu nagusia, 2023 jomuga hartuta. "Kaltitatezko turismoa" sustatuko dute, 29 ekintzagaz.

## Eskuagatx mendiko lur zati bat Izurtzarena dela azaleratu dute egindako ikerketek

### IZURTZA • J.D.

Eskuagatx mendian eta Urkiola Parke Naturalaren barruko lurretan 53 hektareako lur zati bat du Izurtzak. Aldundiko katastroan ez da jasota egon titulartasuna Izurtzakoa zela. Horregatik, Izurtzako Udalak eta Aldundiak, elkarregaz, ikerketak agindu dituzte. Arlo horretako adituek eskura zeuden dokumentuetan arakatu dute eta eremura bertara joan dira. Perimetroan zehar, sasoi bateko hainbat mugarri aurkitu dituzte, esaterako. Informazio horregaz guztiagaz zehaztu ahal izan dute perimetroa.

Mañaritik Urkiola igotzen hasi eta eskumako aldean dago 53 hektareako lur zati hori, Eskuagatxen mendi-hegalean.

**Ikerlariak eskura zeuden dokumentuetan arakatu dute eta eremura bertara joan dira mugarrien bila**

Behetik gorako norabidean, laukizuzen itxura du. Mañariko hainbat lur pribatutan egiten du muga lau aldeetan. Izurtzako lur horien mugaketa ekainean egingo dute ofizial, Aldundiak iragarri duenez.



## Obra txikiatarako baimenak lortzeko tramitazioa arindu du Mañariko Udalak

### MAÑARIA • J.D.

Obra txikiatarako baimenak lortzeko tramitazioa arindu du udalak. Udaletxean aurrekontu bat aurkeztu eta formulario bat betetzen duenak laster jasoko du obra horiek egiteko baime-na, asteetan itxaron beharrik barik. Gero, udal arkitektoaren ardura izango da lanak esandakoaren arabera egiten ari direla gainbegiratzea.

Helburu berdinean Legorretan (Gipuzkoa) indarrean dagoen ordenantza hartu dute eredu moduan Mañariko lantzeko. Azkenengo udaltzarrean, hasierako onarpena eman zioten ordenantzari, aho batez. Alegazioen epea amaitzen denean, behin betiko onartu eta indarrean jarriko dute.

Durango Merinaldearen Amonkomunazgoa  
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Zure lanerako  
**HAZILAN**  
Gin al enplea

EUROPA BATASUNA  
Europako Garapen Funda  
ECF's zure enplegurako inbertitzen du  
UNION EUROPEA  
Fondo Social Europeo  
El FSE invierte en tu futuro

Tel.: 94 623 25 22  
[www.mdurango.org](http://www.mdurango.org)



**IBANE ANDEREZ URIARTE**  
**MATEMATIKAKO GRADUA**  
HAZILANeko III edizioko parte-hartzailea

### Zergatik erabaki zenuen HAZILAN programan parte hartzea?

Ikasketak bukatuta lan mundura sartu nahi nuen, baina ez nuen nire burua prest ikusten horrelako pauso handi bat emateko. HAZILAN programaren berri izan nuen eta aukera paregabea zela iruditu zitzaidan.

### Zein zen sentitzen zenuen beharrian handiena programak asebetetzen lagundu dizuna?

Elkarrizketa batean nola jokatu zen nire beldurrik handiena. Ikasketa prozesuan hainbat gauza ikasteko aukera daukagu, baina uste dut ez zaiola garrantzirik ematen behin formazioa bukatutakoan datorrenari.

### Taldeko prestakuntza fasean landutako hainbat aspektuetatik, zein azpimarratuko zenuke balio erantsi gisa langabezia dagoen gazte batentzat?

HAZILANeko lehen fasean hainbat gauza ikasi genituen, baina, batez ere, motibazioaren lanketa

azpimarratuko nuke nik. Konpetentzia pertsonal oso garrantzitsua dela uste dut eta, kasu askotan, ez dugu behar bezain beste lantzen. Sarritan pentsatu izan dut ikasketak egiterakoan garrantzi handia ematen zaiela konpetentzia profesionalei; ez, ordea, pertsonalei eta uste dut oso aspektu inportantea dela langabezia dagoen pertsona batentzat.

### Non egin zenituen praktikak?

GFI enpresan burutu nituen praktikak, Bilbon, Programatzaile moduan.

Nire lehen kontaktua izan zen lan munduarekin. Ez nekien zerekin egingo nuen topo eta, egia esan, pixka bat beldurtuta nengoen, baina, azkenean, oso esperientzia polita izan zen.

### Momentu honetan zer ari zara egiten?

Praktikak egin nituen leku berean nago lanean. Praktikak bukatzeko garaian, bertan lan egiteko aukera paregabea eskaini zidaten eta inongo zalan-tzarik gabe onartu nuen.

### HAZILAN programan parte hartzeak zein aldaketa eragin ditu zure lan egoeran edota maila pertsonalean?

Ez neukan harremanik lan munduarekin eta bizi-tzako etapa berri horretan lehen pausoak ematen eta sortutako zalan-tza eta beldur guztiei aurre egiten lagundu dit HAZILANEK.

Alde pertsonalean konfiantza eta motibazioaren lanketa nabarmenduko nituzke, bakarkako tutoretzetan asko lantzen genituen.

### Nori gomendatuko zenioke HAZILAN programan parte hartzea eta zergatik?

Ez nuke perfil zehatz batera mugatuko, pertsona bakoitzaren egoera pertsonalera egokitzen dela uste dut. Nire kasuan bezala ikasketak bukatu berri dituen pertsona batentzat oso interesgarria izan daiteke, baina gure taldean denbora luzez langabezia zeudenak ere bazeuden eta haientzat ere programa hau oso aberasgarria izan dela esango nuke. Beraz, orokorrean, norberaren laneratzeko bidea landu edota hobetu nahi duen edonori gomendatuko nioke HAZILANen parte hartzea.



# Zornotzako eta lurretako EAJk udal hauteskundeei begira osatu dituzten zerrendak aurkeztu dituzte

Zornotzan, jendaurreko aurkezpena egin eta hauteskunde programako ardatzak azaldu dituzte; lurretan, 14 lagunek osatutako lan taldean 8 emakumezkoak direla nabarmendu dute




Goian, Zornotzako EAJren udal hauteskundeetarako zerrenda; behean, lurretako EAJrena.

**DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO**

Zornotzako EAJk jendaurreko aurkezpena egin du asteon, eta Andoni Agirrebeitia alkategaia eta zerrenda osatzen duten 19 lagunak batu ditu. Hauteskunde programako ardatz nagusiak ere azaldu dituzte. Azpiegituren arloan, besteak beste Kirolgane eraikiko dute, gaur egungo igerilekuak, tenis pista bat eta hiru padel pista toki berean batuko dituen. Bestalde, Konbenio, Txiki-Otaegi eta Anboto kaleetan proiektu "eraldatzaileak" abiatuko dituzte eta igogailu bi jarriko dituzte Karmen, Andrandi eta Santa Ana kaleetan.

**Zornotzan, besteak beste igogailu bi jarri gura dituzte Karmen, Andrandi eta Santa Ana kaleetan**

Lurretan, 14 hautagaiko zerrenda osatu dute eta 8 emakumezkoak dira. Iñaki Totorikaguena alkategaiaren ostean, Zorione Fundazuri, Oskar Koka eta Itxaso Garamendi daude hurrengo postuetan. Virginia Rodriguez, Jose Antonio Sargarnaga, Arrate Orobiourrutia eta Divina Gallastegi hautagai berriak izango dira. Lurretarren beharria nei nola heldu "ondo baino hobeto" dakien lantaldea osatu dutela azaldu dute ohar batean.



## Zornotzako jaiekin identifikatuko den pertsonaia sortzeko lehiaketa martxan

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Herriko jaiekin identifikatuko den pertsonaia sortzeko lehiaketa abiatu du udalak. Irudi zein testuaren bitartez Zornotzarekin harremana duen pertsonaia bat (erreal zein fikziozkoa) irudikatu behar dute parte hartzaileek. Sortzen den pertsonaia herriko bizimodu, historia, tradizio eta ohiturekin lotuta egin behar du.

Lanak maiatzaren 31ra arte aurkeztu daitezke eta irabazlea ekainaren 28an jakinaraziko dute. Lan sarituaren egileak 3.000 euro jasoko ditu.

Azken produktua album ilustratu moduan argitaratuko dute. Hortaz, irudiak eta testua izango ditu. Lehiaketa honetan aukeratuko den pertsonaia urtero egiten diren herriko jaietako karteletan erabiliko da, besteak beste.

# 'Sormening' ekimenaren bitartez, Elorrioko gazte eta nagusien arteko harremanak sendotzen dabilta

Elorrioko Udalak bultzatuta egin duten ekimen honetan, 40 bat nagusik eta 253 bat gaztek parte hartu dute guztira

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Orain hiru urte, Elorrioko Udalak *Sormening* ekimena martxan jartzea erabaki zuen, herriko belaunaldien arteko harremana bultzatzeko asmoz. Ordutik geroztik, Elorrioko gazte eta nagusiek 40 bat ekintza gauzatu dituzte elkarrekin. Onditx Mendizabal koordinatzaileak jakitera eman duenez, *Sormeningek* 40 bat nagusi eta 253 bat gazte batu ditu guztira. "Guk guztiak bat eta une bat sortu ditugu, nagusiak eta gazteak elkartzeko, baina garrantzitsua da, ekintza hau amaitzen denean ere, sortu diren harremanak ez direla amaituko", adierazi du Mendizabalek.

Asteleheneko prentsurrekoan berba egin zuten gaztetxoek adierazi zuten, hasieran aurreiritziak izan zituzten arren esperien-

tzia "zoragarria" izan da eurentzat. Horrez gain, astelehenean berba egin zuten hamabi lagunek ekimenagaz jarraitzeko gogoak dutela adierazi zuten. Bestalde, Idoia Buruaga alkateak esan zuen Elorrio-

**'Sormening'-en helburua nagusiak eta gazteak elkartzeko guneak eta uneak sortzea da**

ko Udalak nagusien eta gazteen arteko harremana bultzatzen eta espazioak sortzen jarraituko duela. "Balorazioa oso positiboa da; oso pozik gaude egindako lanagaz", amaitu zuen.



Hainbat gazte eta nagusik parte hartu zuten asteleheneko prentsurrekoan.

## Bideo akten sistema jarriko dute Berrizko Udalean, herritarrek bilkurak jarraitzeko

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Orain arte, Berrizko bilkurak bideoan zein audioan grabatu izan dituzte, baina pauso bat aurrera egin eta bideo akten sistema jartzea onartu berri du Berrizko Udalak, aho batez. Sistema berri honen bitartez, bideoan grabatutako irudiak akta ofizial bilakatuko dira eta, gainera, herritarrek bilkura etxetik jarraitzeko aukera izango dute.

Horrez gain, etorkizunean batzordeak ere grabatzea planteatu du Berrizko Udalak. "2016tik sarritan planteatu dugu hau. Gure ustez, ezinbestekoa da herritarrek zertan gabil-tzan jakitea, gure gauza on eta txarrekin", adierazi zuen osoko bilkuran Karmen Amezuza EH Bilduko bozeramaileak.



# Zelaietan, Txanporta Kultur Etxearen osteko etxebizitza blokean, Osasun Zentro berria egingo dutela esan du Jose Luis Navarrok

Abadiñoko alkateak jakitera eman duenez, gaur egungo eraikina txiki gelditu da; Osasun Zentro berriak 400 metro karratu izango ditu

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiñoko Udala Osakidetzagaz akordio bat lortzen ari da Zelaietan Osasun Zentro berri bat egiteko. Ohar bidez jakitera eman dutenez, orain dagoen zentroa txiki gelditu da, eta Osasun Sailak Abadiñoko Udalaren eskaria "ulertu" du. Horrez gain, negoziazioak "oso aurreratuta" daudela eta akordioa "laster" helduko dela uste dutela adierazi du Jose Luis Navarro alkateak.

Osasun Zentroa egiteko, Abadiñoko Udalak lokal bat utziko dio Osakidetzari, Txanporta Kultur Etxearen osteko etxebizitza blokean, hain zuzen. Zentro berria egungoaren bikoitza izango da eta 400 metro karratu izango ditu. Bertan, medikuntza orokorreko kontsulta gela bi, erizaintzako beste kontsulta gela bi, erizaintzako balio anitzeko kontsulta gela bat —sendaketak, analisiak eta beste-lako probak egiteko—, pediatriako kontsulta gela bat, itxarongela bat eta bainugela egokitu bi izango ditu. Baita batzargela bat, bulego bat, aldagela bi eta biltegi bat ere.

**Zentro zaharrean, jubilatuen**

Horrez gain, gaur egun Osasun Zentroa dagoen gunean jubilatuen egoitzako taberna jarriko dutela jakinarazi dute prentsa oharrean. "Horrela, bikoiztu egingo da zaharren etxeko tabernaren azalera, eta jubilatuek ingurune lasaiago eta seguruago batean ibiltzeko aukera izango dute", esan du Jose Luis Navarro alkateak.

**Gaur egun Osasun Zentroa dagoen tokian jubilatuen egoitzako taberna jarriko dute**

**Hazkundearen ondorio**

Bestalde, Abadiñoko Plan Orokor berrian aurreikusten den biztanleria hazkundearen ondorioz, Abadiñoko Udalak Eusko Jaurlaritzari hainbat eskari egin dizkiola adierazi du Navarrok. Horren adibide dira, esaterako, Zelaietako eskola handitu izana eta Osasun Zentro berria egitea.



Abadiñoko Osasun Zentroa.

## EH Bildu ez dago ados Zelaietako obren esleipenagaz

Beste txosten bat egiteko eskatu du; Jose Luis Navarro alkatearen esanetan, prozesua "guztiz garbia" izan da

**ABADIÑO • A.M.**

Zelaietako urbanizazio lanak Lasuen enpresak egingo ditu, osoko bilkuran horrela onartu eta gero. Eztabaida piztu zuen erabakiak, izan ere, EH Bilduren ustetan aukeraketa prozesuak "dudak sortu ditu". "Irabazi zuen enpresaren eskaintza atzera bota zen, eskaintza nahikoa justifikatuta ez zegoelako txostena egin duen enpresarentzat; Lasuenek, zerrendako bigarrenak, irabazi du, eta enpresa hori eta txostena egin

duena EAJri lotuta daude", adierazi zuen Mikel Urrutia zinegotziak. Navarro alkatearentzat prozesua garbia izan da. "Akusazio horrek ez du funtsik", adierazi zuen.

**Udal gobernuaren berbetan, ez da beharrezkoa beste txosten bat egitea**

## Zaldibarko EH Bildu alderdiak udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du

Eneritz Azpitarte izango da alkategaia; Carmen Sampedro, Aitor Lopez eta Jasone Urizar ageri dira lehen postuetan



Zaldibarko EH Bilduren hautagaiak.

**ZALDIBAR • J.D.**

Eneritz Azpitarte alkatea da gaur egun, eta Carmen Sampedro, Aitor Lopez eta Jasone Urizar, zinegotziak. Zerrenda hasieran hiru aurpegi berri daude: Ibaia Maortua, Roberto Macho eta Miriam Sanchez. Herri mugimenduko kideak dira hirurak. Azpitarte alkategaiaren ustez, zerrendak ondo islatzen ditu Zaldibarko EH Bilduren ezaugarriak: "Gurea mugimendu anitza eta zabala da, herri mugimendu eta elkarteei lotutakoa, hainbat adin, esparru eta lanbidetako pertsonen osatua eta euskalduna".

**DURANGO  
HERRIGINTZAN**



2030eko Durango zurekin diseinatu eta egin nahi dugu.

*emaiguzu zure iritzia!*

mireia@elkoroiribe.eus

f mireia.elkoroiribe

ig mireiaelkoroiribe

in mireia-elkoroiribe





**Auzorik auzo ibilita, euskaraz aritzeko aukera eskainiko du Berbalagunek**

**MALLABIA • J.D.**  
Mallabiko Berbalagunek, hainbat eragileren laguntzagaz, auzorik auzo joateko ibilaldia antolatu du zapaturako. Euskarra praktikatzea, herriko euskal-

**Euskara praktikatzea eta herriko euskaldunak harremanetan jartzea dira helburuetako batzuk**

dunak harremanetan jartzea eta herriko kultura ezagutaraztea ditu helburu, besteak beste. 10:00etan irtengo dira, udaletxe aurreko aparkalekutik. Ekin-tzan parte hartzeko izen-ema-tea liburutegian egin daiteke.

**Baso Planerako, herritarren ekarpenak jasoko dituzte prozesu parte-hartzailean**

**OTXANDIO • J.D.**  
Baso Plan berriko zirriborroa herritarren ekarpenekin abe-rasteko, prozesu parte-hartzaile-a abiatuko du udalak. Lehen saioa astelehenean izango da, 18:00etatik 20:00etara, eta in-formazio orokorra eskainiko dute. Bigarren saioa apirilaren 9an egingo dute, 18:00etatik 21:00etara, eta proposame-nak jasoko dituzte. Apirilaren 30ean, 18:00etan, jasotako ekarpenak baloratuko dituzte. Saioak udal aretoan izango dira.

**Heriotzaren kulturari buruzko bisita gidatuak eskainiko dituzte Garain**

**GARAI • M.O.**  
Udalak eta Gerediag elkarteak, elkarlanean, heriotzaren kultu-rari buruzko bisita gidatuak es-kainiko dituzte, apirilaren 12an eta 13an. Euskal Herrian herio-tza zelan ulertu izan den azal-duko dute, elementu batzuetan zentratuta: eguzkia, sua, argi-zaiolen esanahia, jesarlekuak, etxea, kanposantua.... Momoitio eta herriguneko eliza zein hile-rria bisitatuko dituzte, besteak beste. Interesdunek Gerediagan eman behar dute izena.

# Apirilean hasiko dituzte N-634 errepidea zeharkale bihurtzeko lanak

Berrantolaketa lan hauek 1.557.000 euroko aurrekontua dute eta Bizkaiko Foru Aldundia izango da arduraduna; Aldundiak berak 634.460 euro jarriko ditu, eta lurretako Udalak, 922.505 euro



Biribilgune bi eta bost zebrabide jarriko dituzte lanek eragingo duten 700 metroko errepide zatian.

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**  
Bizkaiko Foru Aldundiak esan duenez, apirilean hasiko dituzte N-634 errepide nagusia berrantolatatzeko lanak. N-634 errepide nagusia zeharkale bihurtu gura dute, eta, horretarako, 1.557.000 euroko inbertsioa egingo dute; Iurretako Udalak 922.505 euro jarriko ditu eta Bizkaiko Aldundiak, 634.460. Lanek zortzi hilabeteko iraupena izatea aurreikusi dute. Lanak hasiko direla ikusita, "oso pozik" agertu da Iñaki Totorikagüena alkatea. "Lan hauek oso garrantzitsuak dira herriarentzat,

eta urteak daramatzagu gauzatu daitezen", adierazi du.

**Biribilgunean Askondon**  
Herriko bideekin lotura hobetze aldera, biribilgune bi egingo dituzte: Askondo kalearen parean bat, herrigunera eta kultur etxearen alboko aparkalekura sartzeko aukera emango duena, besteak beste. Bigarren biribilgunea Durangoko Francisco Ibarra kalearen parean egongo da. Goiuriako bidea hartzeko aukera emango du horrek, eta zuzenean Durangoko kale horretara sartu eta irteteko aukera ere bai.

Bestalde, 2,5 metroko zabale-ra duten espaloia eta bidegorria egokituko dituzte zeharkale berriaren albo bakoitzean, eta lanek eragingo duten 700 metroko zati horretan, bost zebrabide goratu jarriko dituzte. N-634 errepidearen berrantolaketa gauzatzen denean, zati horretan 50 kilometro orduko abiadura ezarriko dutela iragarri zuten uztailen, udalak eta Aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatu zutenean. Trafikoa ordenatzeko eta abiadura neurtzeko, semaforoak ere ipiniko dituzte, Aldundi-ko arduradunek azaldu dutenez.



**Zaborra ez dela bide bazterrera botatzen esan, eta barkamena eskatu du EH Bilduk**

**IIURRETA • M.Z./A.B.**  
Iurretan kaleak garbitzeko makinak hondakinak bide bazterrera botatzen dituela salatu ostean, EH Bilduk barkamena eskatu du. "Itxuraz, garbiketa enpresako arduradunek bertan garbitzen dute kaleak garbitzeko ibilgailua. Beraz, ez dute hondakinik botatzen bertan", argitu dute. Hala ere, ez dute ulertzen garbiketa enpresak hondakinak ikusita "parte eman ez izana". Udalak ohiko protokoloa martxan jarri duela eta lur-jabeari tokia garbitzeko eskatuko zaiola azaldu dute.  
Zerbitzua daraman Enviser enpresako langileek EH Bilduren "portaera arduragabea" salatu dute. "Ezin da halako salaketa larri bat egin kontrastatu barik".

# Ekaineko euriteek Axpeko bidean eragindako kalteak konponduko ditu Atxondoko Udalak

Lanen esleipena Aste Santu osterako egin eta lanak San Juan jaiak baino lehen amaituta izatea aurreikusten dute

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Ekainaren 3an erruz egin zuen euria Durangaldean, eta Atxondo eskualdeko herririk kaltetuena izan zen. Apatatik Axperako bidean, euriteek kalte handiak eragin zituzten, eta, orduz geroztik, bidea hondatuta dago. Arazo horri amaiera jarri eta bidea konpontze-ari ekingo diola jakitera eman zuen Atxondoko Udalak azken osoko bilkuran. "Euriteen erruz Axperako bidea txarto dago, eta, hori

konpontzeko, lehiaketa publikora aterako ditugu lanak", esan zuen David Cobos alkatea.  
Lanek 256.534 euroko aurrekontua dute eta San Juan jaietarako

**Bidea konpontzeagaz pozten direla esan zuen Gorka Garate EAJko bozeramaileak**

**Apatatik Axperako bidea konpontzeko, 256.534 euro inguruko aurrekontua du udalak**

amaituta egotea aurreikusten du gobernu taldeak. Gorka Garate EAJko bozeramaileak lanak egiteagaz pozten direla esan zuen. "Denbora asko daramagu Axpeko bidearen kontuagaz, eta ordua zen", amaitu zuen Garatek.



Apatatik Axperako bide zatia konponduko dute.





ERAZ ALDIZKARIA / GEREDIAGA ELKARTEKO ARTXIBOA

## Hareek denporak!

# Korrika 1980an igaro zen lehenengoz eskualdetik

Badator Korrika 21. Eskualdeko herriak motorrak berotzen ari dira euskararen aldeko jai mugikorrari ongietorria emateko. Baina, gogoratzen al du inork noiz igaro zen Korrika lehenengoz Durangaldetik? 1980an izan zen, bere lehenengo aldian. *Korrika, Euskal Herria!* leloagaz, Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen. Durangaldeko hainbat herri igaro zituen, tartean Abadiño, irudian ikusten den

moduan. Argazkia Zelaietako Txanporta plazan aterata dago. Orduan, Luis Irazola alkate zenak eraman zuen testigua. Jende askok parte hartu zuen eta argazkian agertzen direnen artean honako hauek daude: Ana Rosa Lazpita, Manu Beltran, Perutxo, Juan Luis Elorza, Angel Arkarazo, Angel Villa, Jose Luis Markiegi, Jabi Abaunza, Josu Negugogor, Salba Esparza eta Pedro Diez Nieto.

## Politikan

Pilar  
Rios Ramos  
PSE-EE



### Gorrotoaren eta bereizkeriaren kontra

Gaur egun gorantz ari dira eskuin muturreko alderdiak, etnia, kultura edo erlijio desberdinetako pertsonen arbuioan eta gorrotoan diskurtsoa erakitzen duten mugimenduak, desberdina den lagunarekiko intolerantzia sustatzen dutenak, bizikidetza sozialari mehatxu larria eraginez. Alderdi horiek ustezko nagusitasun nazionala lehenesten dute politika sozialen aurrean, horrelakorik ia ez baitute.

Guk aurre egin eta geldiarazi behar ditugu gorrotozko diskurtsoak, jarrera arrazisten adierazpidea direlako, eta, era berean, gutxitu behar ditugu sare sozialetan duten onarpen maila. Horixe da 2019. urteko Arrazismoaren kontrako As-teak duen helburu nagusia.

Ekimen horren barruan, datorren ostegunean, *Redes contra el odio: Estrategias para combatir el discurso de odio en las redes sociales* (Gorrotoaren kontrako sareak: Estrategiak sare sozialetan gorrotozko diskurtsoari aurre egiteko) hitzaldia eta *Cuando la red no es social* (Sarea soziala ez denean) dokumentala eskainiko dituzte. Haien bidez, hausnarketa egin nahi dugu, informazioa partekatze eta komunikatzeko forma berri hauek ez ote duten gorrotoa areago sustatzen gure bizitzetan. Dokumentalean, kolektibo ahuletakoak diren lagun batzuek "hater"ekin —sare sozialetako gorrotatzaile profesionalekin— izandako esperientzia kontatzen dute.

Izan ere, sare sozialak babes ezin hobea dira tankera horretako pertsonentzat eta alderdi politikoentzat, eta gizatxar horiek nahi bezala mugitzen dira espazio horietan.



### Besaideko monumentu ingurua hondatu dutela salatu du Euskal Mendizale Federazioak

**Elorrio** | Euskal Mendizale Federazioak Besaideko monumentuak jasandako ekintza bandalikoak salatu ditu sare sozialetan. Gogoratu dutenez, ez da ingurua hondatzen duten lehen aldia: "Urtebete ere ez da pasatu azkenengoz konpondu zutenetik, eta berririo gertatu da", kexatu dira. Monumentuaren inguruan motor erruberen arrastoak ageri dira eta, inor seinatu barik, aditzera eman dute motozale batzuk han ibili izanaren ondorioa dela. Inguru hark mendizaleentzat eta beste askorentzat duen balio sentimentala azpimarratu eta errespetua eskatu dute. Aldi berean, jokabide zuzenak aldarrikatu dituzte.

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## Durangaldea asteen

### San Trokaz jaien kartel lehiaketarako lanak apirilaren 12ra arte aurkeztu daitezke

**Abadiño** | Maiatzeko San Trokaz jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa abiatu du udalak. Proposamenak apirilaren 12ra arte aurkeztu daitezke, Zelaietako Udal Mediatekan eta Traña-Matienako Errota Kultur Etxean. Kartel irabazleak 300 euro irabaziko ditu. Aurkezten diren lanekin erakusketa bat egingo dute Udal Mediatekan, maiatzaren 6tik 20ra bitartean. Sariak banatzeko ekitaldia maiatzaren 12an egingo da, San Trokaz plazan, Talde Batuak dantza taldearen ekitaldi batez batera.

### Azaleko minbiziaren gaineko hitzaldia eskainiko dute Elorrioko kultur etxean

**Elorrio** | Bizidun Durangaldeko Nagusien Elkarteak eta minbiziaren kontrako AECC elkarteak azaleko minbiziaren gaineko hitzaldia antolatu dute apirilaren 2rako, 18:15ean, Elorrioko Iturri Kultur Etxean. Prebentzio neurrien gainean jardungo dute, besteak beste. Horrez gainera, gaixotasuna goiz detektatzeak duen garrantzia ere sakonduko dute hitzaldian.

### Ahalduntze ikastaroen baitan, ekonomia feminista ikastaroa Zaldibarren

**Zaldibar** | Ekonomia feminista ikastaroaren helburua generoak dimentsio sozioekonomikoan duen pisuan sakontzea da. Besteak beste, kapitalismoaren eta heteropatriarkatuaren arteko loturaz hausnartuko dute. Martxoaren 29ra arte eman daiteke izena. Saioak apirilaren 2an eta 9an izango dira, Zaldibarren. Emagin elkarte Marina Sagastizabal eta Saioa Cerain izango dira ikastaroetako dinamizatzaileak.

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak





## Gure Esku Dago

HITZALDIA

ABADIÑO: Apirilak 4

## Hitzaldia estatutu berriari buruz

Abadiñoko Gure Esku Dagok hitzaldia antolatu du apirilaren 4rako, 19:00etan, Txanporta kultur etxean. Zelai Nikolas, Iñigo Urrutia eta Josu Etxaburu

izango dira hizlariak. Testuigurua kontuan hartuta, Gure Esku Dagok aurrera begira zer asmo duen azalduko du Etxaburuk. Nikolasek eta Urru-



## Emakumeen VII. Bizikleta Martxa Feminista, zapatuan

**ARTEA** | Durangaldeko Emakumeen VII. Bizikleta Martxa Feminista Iurretan hasiko dute, bihar, martxoak 30. Frenorik ez sistema heteropatriarkal kapitalista

transformatzen lemapean egingo dute ibilbidea. Iurretako plazan egin dute elkartzeko hitzordua, 10:00etan, eta 10:30ean irtengo dira. Zaldibarren amaituko dute

Durangaldea zeharkatuko duen martxa, 13:30ean. Aurretik, geldialdia egingo dute Elorrión, 12:00etan.

Zaldibarko Gaztetxean bazkaria izango dute, 15:00etan, eta, horren ostean, poteo feminista egingo dute. Kontzertuagaz amaituko dute eguna: MOONetaSPOOTNIK taldeak joko du, 20:30ean. Pikoteoa eta musika feminista ere egingo dira.

### Martxoaren 29an

**BERRIZ antzerkia**  
**‘Lur’ (Xake Produkzioak)**, 18:15ean, Kultur Etxean.

**DURANGO tailerra**  
**Irrati tailerra**, 11:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan. Durangoko ikastetxeetako ikasleak. Martxoak 31, Durangoko Bonbardatzeak Oroituz 1937-2019.

**ZALDIBAR izen-ematea**  
**‘Ekonomia feminista’ ikastaroan izena emateko azken eguna.** Udaletxean, liburutegian eta berdintasuna@zaldibar.eus helbidean. Apirilaren 2an eta 9an, 18:00etatik 21:00etara, liburutegi zaharrean (euskaraz). Marian Sagastizabal eta Saioa Cerainegaz (Emagin). Hartzaindegi zerbitzua, aurrez abisatuz gero.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**‘Amaren eskuak’**, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

### Martxoaren 30ean

**BERRIZ ipuin kontalaria**  
**‘Koloreetako munstroa’ (Olga Sanchez)**, 12:15ean, Kultur Etxean.

**DURANGO oroimen gunea**  
**Bonbardaketaren biktimen oroimen gunea**, 11:00etatik 19:00etara, Andra Marian. **‘Bonbardatzearen arrastoak’ bisita gidatua** Kurutze Santu museotik: 11:00etan (gaztelaniaz) eta 12:30ean (euskaraz). Izena ematea: [gerediaga@gerediaga.eus](mailto:gerediaga@gerediaga.eus)/94 681 80 66. Martxoak 31, Durangoko Bonbardatzeak Oroituz 1937-2019.

**DURANGO dokumentala**  
**‘Gerra hemen hasten da’**, 19:00etan, San Agustinen. Gero, egileekin solasaldia. Martxoak 31, Durangoko Bonbardatzeak Oroituz 1937-2019.

**ELORRIO musika**  
**Musika Eskolako ikasleak**, 18:30, Arriolan.





tiak autogobernu po-  
nentzia eta Euskadira-  
ko estatutu berria izan-  
go da Durangon antolatuta-  
koa, 10:00etatik 20:00etara  
artekoa, eta, guztira, 800 gaz-  
tetxok parte hartuko dute.  
Besteak beste, Uztai taldearen  
lanari esker antolatuko dute,  
eta sarrera doakoa izango da.

15-agendaANBOTOk agendan ezer iragarri  
gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo  
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Gimnasia erritmikoko Bizkaiko eskolarteko saioa, Durangon

**GIMNASIA ERRITMIKOA** | Biz-  
kaiko eskolarteko txapelketa-  
ko bigarren faseari dagokion  
jardunaldia hartuko du, za-  
patuan, Landako kiroldegia.  
Egun osoko jardunaldia izan-  
go da Durangon antolatuta-  
koa, 10:00etatik 20:00etara  
artekoa, eta, guztira, 800 gaz-  
tetxok parte hartuko dute.  
Besteak beste, Uztai taldearen  
lanari esker antolatuko dute,  
eta sarrera doakoa izango da.



**OTXANDIO eztabaida**  
**‘Otxandixon emon dan jai**  
**ereduaren bilakaera eta**  
**hausnarketa herrikoia’,**  
18:30ean Gaztetxean.

**ZORNOTZA desfilea**  
**Urritxe Institutuko**  
**desfilea,** Zornotza Aretoan.  
20:00etan eta 22:00etan.

### Martxoaren 31n

**DURANGO omenaldia**  
**1. aire-erasoaren**  
**alarma hotsa jotzea,**  
08:30ean, Andra  
Mariko kanpandorrean.  
**Bonbardaketaren**  
**biktimen omenez lore**  
**eskaintza,** kanposantuan.  
**Gerra zibilaren biktimei**  
**oroimen ekitaldia,**  
12:00etan, Benita  
Uribarrena parkean.  
**2. aire-erasoaren**  
**alarma hotsa jotzea,**  
17:45ean, Andra  
Mariko kanpandorrean.  
**Bonbardaketan hildakoei**  
**oroimen ekitaldia,**  
20:00etan, Andra Marian.  
Martxoak 31, Durangoko  
Bonbardatzeak Oroituz  
1937-2019.

**ELORRIO ekitaldia**  
**Ekitaldi publikoa eta**  
**kantaldia: Julia Itoiz (La**  
**Chula Potra)** 12:00etan,  
Arriolako kantoian.

**ELORRIO mintegia**  
**‘Lan produktiboaz**  
**eta erreproduktiboaz**  
**hausnartzen’,** 17:30ean,  
Gaztetxean. Otxandio,  
Abadiño, Berriz eta  
Elorrioko gazte asanbladak.

### Apirilaren 1era arte

**ABADIÑO lehiaketa**  
**Sanprudentzioetarako**  
**kartel lehiaketa.** Lanak,  
Mediatekan edo Errotan.

### Apirilaren 2an

**DURANGO opera zuzenean**  
**‘La fuerza del destino’,**  
19:15, Zugaza Zineman.

**ELORRIO hitzaldia**  
**‘Azaleko minbizia.**  
**Prebentzioa eta**  
**hautemate goiztiarra’,**  
18:15, Iturri kultur etxean.

### Apirilaren 5ean

**ABADIÑO deialdia**  
**Korrikako prestaketak,**  
17:30etik 19:30era,  
Errota kultur etxean.  
Katalamixonek  
kudeatutako Abañoko  
Gaztiekin ekimenak  
antolatuta. Izena emateko,  
martxoaren 29ra arte,  
Errotan edo Mediatekan.

**ELORRIO antzerkia**  
**‘Zazpi senideko’ (Axut!),**  
20:30ean, Arriolan.

**ELORRIO ipuinak**  
**Kontu eta kantu:**  
**Fernando Anbustegi,**  
umeen liburutegian:  
17:00ean, (3-5 urte), eta,  
17:30ean (sei urtetik  
gora).

**ZORNOTZA musika**  
**Internacional Citrus**  
**Band,** 20:15ean,  
Zelaietan.

### Apirilaren 2tik 14ra

**ELORRIO erakusketa**  
**‘Elorrioko Gerra Zibilaren**  
**Memoria’ (ele bitan),**  
Iturri kultur etxean: 11:00-  
13:00 / 18:30-20:30.  
DBHko 4. mailakoekin  
bisita gidatua. III. Memoria  
Astea.

### Apirilaren 23ra arte

**DURANGO erakusketa**  
**Martxoak 31: ‘Irudi**  
**izoztuak vs izoztutako**  
**oroimenak’ argazki**  
**erakusketa,** Andra Mari  
inguruan. Gerediaga.

### Apirilaren 28ra arte

**DURANGO erakusketa**  
**‘Argiak eta Itzalak’**  
**(Acuzena Fernandez).**  
Arte eta Historia Musean.

**DURANGO erakusketa**  
**‘Al Ente’(Iranzu Antona,**  
**Mariana Unda, Eztizen La**  
**Cruz, Leire Muñoz, Clara**  
**Elizondo eta Andere**  
**Etxegarai)** Arte eta  
Historia Musean.



## Zinea

**:: Berriz**  
**KULTUR ETXEA**

• **El vicio del poder**  
barikua 29: 22:00  
domeka 31: 19:00

**:: Durango**  
**ZUGAZA**

• **Margolaria**  
barikua 29: 20:00 (Ondoren, solasaldia  
Mikel Urdangarin abeslariagaz)  
• **Dumbo**  
barikua 29: 19:30/22:00  
zapateria 30:  
16:30/17:30/19:15/22:30  
domeka 31:  
12:00/ 17:00/18:00/20:30  
astelehena 1: 18:30/21:00  
martitzena 2: 20:00  
eguztzena 3: 20:00

• **Escape Room**  
barikua 29: 19:30/22:00  
zapateria 30: 20:00/22:30  
domeka 31: 18:00/20:30  
astelehena 1: 18:30/21:00  
eguztzena 3: 20:00

• **Las Herederas**  
zapateria 30: 20:00/22:30  
domeka 31: 19:30  
astelehena 1: 18:30/21:00  
martitzena 2: 20:00  
eguztzena 3: 20:00

**:: Elorrio**  
**ARRIOLA**

• **Pájaros de verano**  
zapateria 30: 20:00  
domeka 31: 20:00  
astelehena 1: 20:00

• **Cómo entrenar a tu**  
**dragón 3**  
domeka 31: 17:00

**:: Zornotza**  
**ARETOA**

• **El Reino**  
domeka 31: 20:00  
• **Margolaria**  
astelehena 1: 20:15  
• **Trenk, el pequeño**  
**caballero**  
domeka 31: 17:00



# Estetika gida

anboto

## Ile-apaindegia



**NUKLEO**  
ileapaindegia

**946 582 996**  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

## Ile-apaindegia



**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
Tel.: 946 216 491



## Belardenda eta dietetika

**OSASYN - ETXEA**  
BELAR-DENDA eta DIETETIKA

40 urte baino gehiagoko esperientzia

**NIK AHAL DUT**

PROMOZIOA MARTXORAKO ETA APIRILERAKO  
DIETA PERTSONALIZATUA  
4 kontsulta = 40 euro

+  
5 euroko txartela produktuak erosteko

**AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA**

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO  
Tel.: 688 730 694-osasunetxea@hotmail.com  
f Herboristeria Osasun Etxea

## Ile-apaindegia



**Salón de belleza**

*M<sup>a</sup> Jesús Luque*

UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutziaza kalea, 9 - DURANGO  
☎ 946 81 43 89



**Iunik**  
Jon Sopelana

**IUNIK** | Apirilaren 25ean, ate irekien jardunaldi bat egingo dute Iuniken, ile apainketari eta gorputzeko estetikari buruz. Elkarrizketa honetan, ile apaindegian dituzten zerbitzuen berri eman du Jon Sopelana ardura-dunak.

**Zelako zerbitzua eskaintzen duzue Iuniken? Zein momentu da ona ile mozketara edo konponketa bat egiteko?**

Gure bizimoduko estresagatik, ilera-ko ere beharrezko zaigu deskonektatzea, bolumen handiagoa lortzeko eta ile gutxiago galtzeko. Emakume eta gizonentzako mozketak eskaintzen ditugu, estilo moderno zein klasikokoak. Iuniken hainbat tratamendu topatu ahalko dituzu. Egun

berezietarako ere, etor zaitez gurera; trentza bat, motots bat edo ile bildu bat izan, atsegin duzun orrazkera bat egingo dizugu. Berezi sentiaraziko zaitugu.

**Zelan lantzen dituzue koloreak?**

Koloreak emateko erabiltzen ditugun olio, buztin eta metxak disolbenteekiko libreak dira. Oinarri naturala dute eta kolore distiratsuak sortzen ditugu.

**Estetika arloan ere egiten duzue lan.**

Aurpegiko bioterapiak eskaintzen ditugu, zure azalaren arabera eta lortu gura duzun emaitza kontuan hartuta. Azala garbitzeko izan daiteke, zimurak murrizteko, edo azala birsortzeko ere bai. Gainera, gorputzerako ere baditugu bioterapiak. Tratamendu reafirmantea, birsortzekoa eta erlaxagarria ditugu. Bestalde, azazkalek asko esaten dute gutaz, eta, horregatik, manikura garrantzitsua da. Esku eta oin ugarientzako tratamenduak ditugu, eta produktu beganoak erabiltzen ditugu, kaltetu ez daitezen.



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



# “Ilustrazioen bidez espresatzen naiz, eta nire intereseko gaiak jorratzeko erabiltzen ditut”

Martxoaren 8aren harira, Durangoko Alde Zaharreko horma batean dagoen murala marraztu du Usue Egiak elkarlanean



**Usue Egi Fernandez de Retana**

Ilustratzailea  
Durango | 1992

**MARRAZKIGINTZA • KAROLINA SUAREZ**  
**Ilustrazioen munduan bere bidea**  
**urratzen ari da Usue Egi duran-**  
**garra.**

**Zer islatzen dute M8ko muraleko**  
**matrioxkek?**

Matrioxken itxura hori humanizaztea gura nuen, pertsona bihurtuz, bizitza emanez. Mural honetan ikusten da, emakumeak euren kapetatik irteten direla, bata bestearen laguntzagaz. Azkenean, bizitza bera erdigunera daramate. Ni diseinuaz arduratu nintzen, eta

greba bezperan hainbat emakume bildu ginen margotzeko. Lan handia izan zen, euria hasi zen gainera, baina egin genuen.

**Noiz eta nola hasi zinen marrazten?**

Txikitatik hasi nintzen eta ez diot marrazteari inoiz utzi, baina ikusentzunezkoen gradua ikasterakoan berreskuratu dudana afizio bat da. *Storyboard*-ak eta narrazio grafikoak egitea gustatzen zitzaidan, eta baita nire bidaien bitakora moduko bat egitea ere, ilustrazioekin edo komiki moduan laburtuta. Niretzat ez da serioa izan. Lehiaketetan par-

te hartzen hasi nintzenean bilakatu zen kontu serioago bat. Unesco etxeak antolatutako *Gure mundua eraldatzeko 17 helburu* lehiaketan, nire lan biek saria irabazi zuten, eta, horren ostean, erakusketa egin zuten lanekin. Hor ikusterakoan, perspektiba aldatu nuen. Hobbya izaten jarraitzen du, baina ogibidea ere izan daitekeela ikusten duzu.

**Eta ordutik, lehiaketa gehiagotan parte hartu duzu?**

Bai, baina lehiaketak eztabaidagai direla uste dut. Ona dela uste dut, sorkuntza proiektuak sortzen di-

relako horrela, baina frustragarria ere izan daiteke irabazten ez duzunean. Jarraituko dut neure burua aurkeztzen, baina lehiaketek kontraesana sortzen didate. Komikigintzan ere egiten dira lehiaketak, baina nire komikiak oso pertsonalak eta indibidualak izaten dira, eta horregaz ere kontraesana sortzen zait, ea noraino egin gura dudana nire bizitzaren zati hori publiko.

**Nola definituko zenuke zure estiloa?**

Estilo propioa dudala esan didate, eta hala dela uste dut. Pastel koloreak asko gustatzen zaizkit. Oro-

korrean, hainbat inspirazio iturri dauzkat, momentuaren arabera.

**Gai espezifikoak lantzen dituzu.**

Gai sozialak lantzea dut gustukoan. Espresatzeko modu bat da ilustrazioa eta nire intereseko gaiak jorratzeko baliatzen dut. Zentzurik bako umorea ere asko gustatzen zait eta maiz tartekatzen dut.

**Nolako izaten da sorkuntza prozesua?**

Autodidakta izan naiz beti, eta, beraz, ahal dudana neurrian noa hobetzen. Sorkuntza prozesuari buruz, ideia bat-batean datorkit batzuetan, eta, beste batzuetan, ilustrazio tailerretan sortu izan diren proiektuetan. Hor oso ideia espontaneoak egon daitezke. Adibidez, testu bat idazten dut gero, eta

“**Matrioxken itxura hori humanizatzea gura nuen, pertsona bihurtuz, bizitza emanez**

hori binetetan islatzen dut. Gero, digitalizatu egiten dut.

**'Garelako' film laburra egin zenuen.**

Nire gradu amaierako lana izan zen hori. Animaziozko zerbait egin gura nuen, eta Eneko Sagardoyk konposatu eta Durangoko musikari batzuekin egin zuen *Garelako* abestia. Musika eta gaiagatik [sexu aniztasunari buruz berba egiten du] sartu nintzen proiektuan. Orain dela bospasei urte izan zen hori. Lan intimoa bilakatu zen, eta hortik sortu zen ideia. Animazioa egin gura nuen, ilustrazioetatik abiatuta, aurretik ez nuen-eta horrelakorik egin. Narrazioa eta abestia batera doaz. Komikia dago, eta egoera batzuk sortzen dira horretatik, baina, azkenean, guztiok ezberdinak garelako diote berbek, eta horrela izan behar duela.

## Hiru autobus irtengo dira Elorriotik Arriolak antolatzen duen Break On Stage jaialdira joateko

**KULTURA URBANOA • A.M.**

Apirilaren 6an izango da Break On Stage kultura urbanoaren jaialdia, Bilbo Arenan. Europa osoko taldeen hogeik ikuskizun baino gehiagoz gozatu ahal da bertan. Besteak beste, BMX Big Jump, Parkour eta Scooter ikuskizunak egongo dira. Aurten, gainera, The Ruggeds-en (World of Dance lehiaketako breakdance ikuskizunik onenaren sariaren irabazleak) eta Nach abeslariaren

**BMX Big Jump, breakdance, hip hop, parkour eta scooter emanaldiak egongo dira**

**Arriolako bazkideek 8 euroan erosi ahal dituzte sarrerak; gainontzekoek, 10 euroan**

kontzertuak ere ikusi ahal izango dira.

Azken urteetan bezala, Arriolak autobusak antolatuko ditu jaialdira joateko. Bost euro balioko ditu txartelak; 25 urtetik beherakoak doan joan ahal da. Autobusez joateko, jaialdirako sarrera Arriolan erosi behar da eta izen-ematea beharrezkoa izango da; telefonoz, helbide elektronikora mezu bat bidalita edo Arriolako bulegoetan eman daiteke izena.



Dantza urbanoak dira protagonistetako bat Break On Stage jaialdian.



# 'Heriotza Bikoitza' eta Karrikaren 'Work in progress' aurkeztuko dituzte Ertzak jaialdian

Martxoaren 29-31 bitartean, Ertzak topaketak izango dira Lekeition; euskal eszenarentzat leiho bat izan gura du

## ANTZERKIA • A.M.

Euskal Herri osotik etorritako talde eta bakarlarien erakusleho izango da Lekeitio asteburuan. Zazpi antzerki obra, tailer bi eta mahai-inguru bat aurkeztuko dituzte. Antzerki taldeen sarea eraikitzen hasteko lehenbiziko urratsa izatea gura dute antolatzaileek.

Durangaldetik eskaintza bi eramango dituzte topaketetara. Eneko Sagardoy protagonista duen *Heriotza Bikoitza* antzezlan egongo da ikusgai zapatuan, hilak 30. Ze Onda antzerki konpainiaren lana ikusteko azken aukera izango da Lekeitiokoa. Sagardoy eta Miren Gaztañaga dira heriotzaz, iraganaz, orainaz eta etorkizunaz mintzo den antzezlan honetako protagonistak. Ikusgarri aretoan egongo da ikusgai *Heriotza Bikoitza*, zapatuan, 22:00etan.

## Enbrioia konpartituz

Aurretik, zapatu arratsaldean, Karrika antzerki taldeak bere ibilbideko erronka nagusietako baten berri emango du Lekeitioko jaialdian.

**'Work in progress' Karrika sorkuntza kolektiboa lantzen ari den obra berriaren aurkezpena izango da**

Jose Martin Urrutia Txotxe zendu ostean lantzen ari diren ikuskizunaren enbrioia aurkeztuko dute publikoaren aurrean. Karrikako zuzendaria hil ostean egingo duten lehenbiziko lana izango da hau. Sorkuntza kolektiboan, gizartean

izaten diren estereotipoen, etiketen eta heteroarauen inguruan mintzatzen dira obran. Oraindik ez du izenbururik lan horrek, eta Lekeitiokoa hoge minutuko aurrerapena izango da. Barandiaran aretoan antzeztuko dute, 18:45ean.



Eneko Sagardoy 'Heriotza Bikoitza' lanean.

## Durangaldeko hiru taldeek lortu dute Bizkaiko taldekako hurrengo faserako txartela

Bigarren fasea martxoaren 27an hasi eta maiatzaren 13an amaituko da; zozketa bidez erabakiko da saioen osaketa

## BERTSOLARITZA • A.M.

Lehenbiziko fasea amaituta, Durangaldeko hiru taldeek lortu dute Bizkaiko taldekako bigarren faserako sailkatzea: Igorreko saioan, Berriz-Elorrioko Miotako Bidelapurak taldeak lortu zuen txartela. Aurretik, Durango-Iurretako Tronperrieta eta Abadiñoako Koipelustre's taldeek lortu zuten sailkatzea.

Guztira, zazpi taldek egin dute aurrera txapelketan. Bigarren fasea hiru saiok osatzen dute, eta zozketa bidez aukeratuko da zein taldek abestuko duen saio bakoitzean. Martxoaren 27an hasi eta maiatzaren 13ra bitartean jokatu da. Finala maiatzaren 25ean izango da eta hiru talde lehiatuko dira elkarren aurka.



Berriz-Elorrioko Miotako Bidelapurak taldea.

## Gai librea

Garazi Arrizabalaga  
Cabrerizo  
Durangoko museoa



## Gela propio bat

Virginia Woolf idazle britainiarrak 1929an *Logela propioa* saiakera idatzi zuen. Bertan azaltzen zuenez, emakume baten logela propio bat eta dirua behar ditu nobela bat idatzi ahal izateko. Norberaren espazioa beharrezkoa omen da sortzeko. Ideia hori oinarri modura hartuz, Durangoko Arte eta Historia Museoaan *Atente* erakusketa sortu dugu. Aurretik harremanik ez zuten sei artista elkartu ditugu eta espazio fisiko bat eman diegu, sormenari hegoak emanda. Nahi zutena nahi zuten lekuan egiteko aukera eman diegu. Horrela eratu da erakusketa hau. Museoko bigarren solairua sei artista gazte hauen logela propio bihurtu da apirilaren 28ra arte. Ikusgai dauden lanetatik aparte, beraien artean sortu den harremana ere azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, batera lan egitean sei emakume hauek erlazio artistiko berezi bat sortu dute eta beraien hartu-emanek artelan itxura hartu dute.

Honek beste hausnarketa batera narama: sormenari bultzada bat ematea espazio propio bat izatea baino ez bada, zergatik ez dugu eskualdean horrelakorik? Non batu daitezke artistak sortzeko, elkarren artean harremanetan jartzeko edo elkar ezagutzeko baino ez bada? Behin baino gehiagotan entzun izan dut artisten ahotik, horrelako espazio baten beharra dutela. Hain erraza izanda, zergatik ez da horrelakorik existitzen? Ezjakintasuna, sormenagatiko interes falta, leku eza? Ez dira aitzakia nahikoak.

Eskualdeko sormenari bultzada bat emateko, gela bat baino ez dugu behar. Lau horma artea egitearen truke. Gela bat kulturaren alde. Hain zaila al da?



**lea artibai**  
i k a s t e t x e a

Xemein Etorbidea 19  
Markina-Xemein (48270)  
946169002 / info@learfik.eus  
[www.learfik.eus](http://www.learfik.eus)

**LANBIDE HEZIKETA**

erdi mailakoak

- ✓ BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK (iturrintza, eguzki instalazioak, gasa)
- ✓ MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

**BATXILERGOA**

goi mailakoak

- ✓ ADMINISTRATZIOA ETA FINANTZAK
- ✓ MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- ✓ WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

- ✓ FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- ✓ ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
- ✓ AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- ✓ EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

**ATE IREKIAK**  
apirilak 6, 11etan





**Ruben Gorospe Artabe**  
Txirrindulari ohia  
**Mañaria | 1964**

## “Gazteei gero eta gehiago kostatzen zaie entrenatzea”

Deustuko zikloturismo taldearen 25. urteurreneko ekitaldian parte hartu du Gorospek

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEAN**  
**Ruben Gorospek eta Miguel Indurainek Deustuko taldearen urteurrena gogoratu** duen plaka inauguratu zuten **joan zen asteburuan, taldearen beraren egoitzan. Ekitaldi beraren barruan, oroigarri bana jaso zuten biek Bilboko alkatearen eskutik.**

**Sarritan ikusten duzu Miguel Indurain?** Noizerik noizera elkar ikusten dugu, baina ez askorik ere. Afizionatuetatik ezagutzen dut, bera Reynoldsen eta ni Baquén ibili ginetik. Orduan, lehia handia geneukan eta parean ibiltzen ginen. Bera gehiago zen erlojupekoan, baina, aldapan gora, ni hobea nintzen. Gogoan dut, behin, Nafarroako Itzulian berak bigarren eta nik hirugarren amaitu genuela. Beste behin, Bizkaiko Bira berak irabazi zuen, eta nik bigarren egin nuen. **Gero, Reynolds taldean biak batera ibili zineten.**

Bai, ia batera debutatu genuen profesionaletan. Urte haietan lagun ona izan nuen. Mañariko nire etxera etortzen zen. Oporretan ere elkarregaz joandakoak gara. Behin, Marino Lejarreta, Indurain eta hirurok Dominikar Errepublikara joan ginen. Miguel pertsona jatorra eta umila da.

**80ko hamarkadan Reynolds eta 90ekoan Banesto –izena aldatuta– talde erreferenteak izan ziren eta**

**bederatzi urte eman zenituen bertan. Zerbait esan gura du.**

Bai, bada zerbait. Goi mailako txirrindulariak zeuden eta asko ikasi nuen eurekin. Hainbeste urtean proiektu hari neure ekarpena egin izana polita da. Nik neukana eman ez. Indurainek irabazi zuen Italiako Giro batean, gogoan dut han ibili nintzela laguntzen. Zoritzarrez, ezin izan nuen Giro hura amaitu, eroriko bategatik. Eskua eta lau saihets apurtu nituen.

**Laguntzaile lana nahikoa errekonozituta dagoela uste duzu?**

Lehen bai, orain ez. Orain, UCI Pro Tour-a dela-eta, txirrindulari bakoitzak bere puntuak batu ditzake. Zenbat eta puntu gehiago, talde hobera batu ahal zara... Lehen, ez zegoen horrelakorik.

**Orain lehen baino kirol indibidualagoa da txirrindularitza?**

Kasu askotan, bai. Lehen, talde barruko armonia oso garrantzitsua zen. Orain ere bai, e? Baina esango nuke lehen gehiago zela. Gure sasoiak, 100 kilometrotan dena

eman, taldeari lagundu, eta, gero, indarra gordetzen ahalegintzen zinen hurrengo egunari begira. Bazenekien zure lana ondo eginez gero baloratuko zela, taldean jarraitzeko aukera eskainiz, esaterako. Baina, gaur egun, emaitza edo postu onik ez badaukazu, zailagoa da. Beraz, indarra gorde bai, baina postuak egiten ere saiatzen dira txirrindulariak. Hau da, ez desentonatz

ahalegintzen dira, zuzendariaren arreta erakartzeko-edo. Morroi lana ez da hainbeste errekonozitzen, eta txirrindularitza lehen baino indibidualagoa da.

**Atzera begiratuta, une batzuetan zeurekoia** jokatu ez izanaren penarik baduzu? Edo beste erabaki batzuk hartu ez izanarena?

Pentsatu, pentsatzen duzu, baina gatxa da esatea zer gertatuko zen beste erabaki batzuk hartu izan bazenitu. 18 edo 19 urte nituenean, Tekla taldera batzea eskaini zidaten. Hara batu banintz, beste kontu bat izango zen? Ez dakit. Eta, Baneston ere, batzuetan izango nuen indarra gehiago egiteko, baina taldeagatik sakrifikatu behar izan nuen. Hala



Reynolds taldean eta Baneston gero, bederatzi urte eman zituen.

ere, ez naiz hartutako erabakiez damutzen. Asko bidean geratzen dira. Bederatzi urte eman nituen Reynoldsen eta Baneston; Espainiako bost Itzuli, Italiako Giro bi eta Tour bat lehiatu nituen eta uste dut nire lana nahiko baloratua zela

“**Ez naiz hartutako erabakiez damutzen. Pozik nago profesionaletan egin nuen bideagaz”**

taldean. Beti ilusioz ibili nintzen. Beraz, pozik nago profesionaletan egin nuen bideagaz.

**Cafés Baqué taldean zabilta azkeneko urteetan.**

Sasoi batean, kirol zuzendari jardun nuen, baina, gaur egun, lasterketa batzuetan bakarrik laguntzen dut. Ez dut barru-barrutik bizi. 55 urte ditut eta bizimodu lasaia gura dut. Iaz, Lizarte taldeko zuzendari kargua eskaini zidaten eta ezetz esan nien.

**Gatxa da gazteekin lan egitea?**

Lehen, beste giro bat zegoen afizionatuetan. Gazteei gero eta gehiago kostatzen zaie entrenatzea. Mugikorra dela, internet dela... Entrenatu ezik, txirrindularitza ez dago zereginik. Ez dago biharko uzterik.

**Txirrindulari profesional askoren sarterria da Mañaria. Mikel Bizkarra da azkena. Zelan ikusten duzu?**

Beretzaiko talde aipatutako dabilena uste dut. Banestoren moduko talde batean, adibidez, zeregin zehatzak dituzu eta ez duzu luzitzeko aukerarik. Muriasen, oster, bere lasterketa egin eta postu ona lortzeko borrokatu daiteke. Orain txke du adinik onena dena emateko, eta maila aparta duela erakutsi du. Iaz, lasterketa bat irabazi zuen eta hori lortzea oso zaila da.



Gorospe, Indurainekin eta Bilboko alkate Aburtogaz, aurreko asteburuan.



# Bizkaia-Durangok Italiako Giroan parte hartuko du aurten ere, itzulien probarik inportanteenean

lazko errendimenduari esker jaso dute gonbidapena. "Lan handia dago atzetik", dio Agurtzane Elorriaga zuzendariak

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO** Bizkaia-Durango taldeak Italiako Giroan parte hartzeko gonbidapena jaso du aurten ere. Azken urteetan errepikatzen den kontua denez, aukera berez datorrela ematen du, baina Agurtzane Elorriaga zuzendariak argi utzi zuen ez dela horrela. "Giroan parte hartzea garesti dago. Asko kostatzen da gonbidapena jasotzea, eta lan handia dago atzetik", gogoratu zuen joan zen barikuan, taldearen aurkezpen ekitaldian.

Durungaldeko txirrindulari bi dabilta Bizkaia-Durango taldean: Aroa Gorostiza (Elorrio, 1999) eta Irene Loizate (Durango, 1995). Gorostizak "pauso bat aurrera ematea" eta UCI mailako lasterketaren batean "postu on bat egitea" ditu helburu bere bigarren denboral-

dian. Loizaterentzat estreinako denboraldia da txirrindularitza talde batean. Duatloien Europako txapeldunak —23 urtez azpikoan— Durangoko klasikoan lan txukuna egitea izango du aurtengo helburu nagusienetakoa.

**Eskualdeko ziklista bi daude taldean: Aroa Gorostiza elorriarra eta Irene Loizate durangarra**

Bizkaia-Durangok oso talde gaztea du aurten; 23 urtetik beherakoa da batez besteko adina. Denboraldia sasoi onean hasi dute. Esaterako, Sandra Alonsok hamar onenen artean amaitu zuen Valentziako Itzuliko etapa batean.



Joan zen barikuan Durangoko San Agustin kulturgunean aurkeztu zuten taldea.

## Asteko kirolaria

### "Batez ere, etxean zer dudan baloratzeko balio izan dit liga garaipen honek"

Bigarren urtez, Espainiako ligako maila gorenean jokatzen dabil Joana Murray Barandika

**Joana Murrayk urte bi daramatza Espainiako liga gorenean errugbian jokatzen. Joan zen domekan, Iberdrola Ligako txapeldun gelditu zen CRAT Coruña taldeagaz.**

**Nolakoa izan zen domekako finala?** Egun oso intentsoa izan zen, oso urduri geunden denok. Bagenekien aurkari oso gogorra genuela aurrean, eta entrenatzaileak argi azaldu zigun zein izan behar zen jarraitu beharreko bidea. Hasieratik, bagenekien partidua oso gogorra izango zela, baina taldekideok konfiantza dugu taldearengan, eta bagenekien lan eginez gero partidua irabazteko aukerak genituela; eta horrela izan zen.

**Finalean entsegu bat egin zenuen.**

Lehenengo 15 minutuetan errenta hartu genuen markagailuan, eta nire entseguak partidua irabazi genezakeen esperantza eman zigun, lasaitasun puntu bat. Entsegu hori bultzada handia izan zen taldearentzat.

**Zuretzat zer suposatu du CRAT Coruña taldearengan?**

Batez ere, etxean zer dudan baloratzeko balio izan dit liga garaipen honek. Finalera familia guztia etorri zen Durangotik, eta egundoko ilusioa egin zidan. Lagunak ere alboan izan ditut beti, nire kirol ibilbideari jarraitzen, eta pozgarria da hori. Bestalde, taldeak nolako esfortzua egiten duen ikus-

teko ere balio izan dit. Klub honek estruktura handia du, babesle asko ditu eta finalak oihartzun izugarria izan du. Final honen bitartez, nesken errugbiari bultzada handia eman zaiola konturatu naiz. Gainera, nire kirol ibilbidean jokatu dudana partidurik garrantzitsuenak izan da final hau.

**Laster helduko da datorren denboraldiari begira jartzeko momentua.**

**CRAT Coruña jarraitzeko asmoa zaudete?**

Egia esan, oraindik ez dut guztiz erabaki, baina, printzipioz, dena ondo badoa, Coruña jarraitzea gura nuke. Taldean oso gustura nago eta, gainera, masterra egiteko aukera ere eskaintzen dit klu-



**JOANA MURRAY BARANDIKA**  
Durango, Errugbilaria

bak. Beraz, ondo bidean, datorren denboraldian ere Galizia aldean jarraituko dut.

**Getxotik Galiziara joan zinen. Denboraldiaren nolako balorazioa egiten duzu?**

Galizian oso ondo hartu naute. Jendea oso hurbilekoa da eta entrenamenduen kalitatea izugarria da. Horrek jokalaria moduan hazten lagundu didala esango nuke. Iaz, Getxogaz ezagutu nuen maila hau, eta aurten ere izugarri ikasi dut maila honetan.

## Jokaldia

Iñaki Iza  
Zarazua  
Pilotari ohia



### Mugarik gabeko gorakada

Hainbat dira pilotazaleok memorian gordeta ditugun momentu gogoangarriak. Retegi II.ak Titin III.ari lau t'erdian irabazi zioneko azken tantoa adibidez, airez pilota txokoan goxo-goxo utzi zueneko. Edo Fernando Medina pilotari mexikarrak zabaleko pilota bati errebes ez erantzun zioneko. Irujori eta Goñi III.ari txapela irabazteko balio izan zien ihes egindako pilota hura ere beste bat izan daiteke. Aitor Elordi zerrenda luze horretara gehitzeko moduko beste momentu aipagarri bateko protagonista izan zen. Promozio mailan binakako finalerako pasea lortzeko balio izan zien gantxo hartaz ari naiz. Hogeita banako berdinketarekin Aitorrek bikotearen erantzukizuna hartu eta gantxo zehatz batekin bukatu zuen partidua. Mallabitarra, Oier Etxebarria debutariarekin batera, finalera iristea, txapelketa osoan zehar bikotearen zama bere gain hartzea, hain tentsio handiko momentuan gantxo hura markatzea... ez dira inondik inora kasualitatearen ondorio.

Elordik 2016an egin zuen debuta profesionalean, 19 urte zituela. Askoren ustez, pilotari "polita" zen, baina oraindik "egin gabe" zegoen eta, ondorioz, profesional mundura moldatzea kosta egin zitzaion. Orain, ordea, pilotari zaildua da Aitor, bere tokia hartzen doa eta konfiantzaz gainezka dago. Deskribatu ditudan bi Elordiren artean hiru urteko lan nekaezina baino ez dago. Hori da bere sekretua. Larunbatean, Iruñeko Labrit pilotalekuan, txapela irabazi edo ez, Promozio Mailako binakako txapelketa borobil bati bukaera emango dio mallabitarra. Aldiz, bere gorakadak mugarik gabeko jarraipena izaten jarraituko du.

**CERAMICAS MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN  
**MACOBER**  
Chimeneas  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA  
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

katerin ardoak  
**iñaki uribe**  
25<sup>urte</sup> Saltsan  
Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardogia  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
**saltsan.com**

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?**  
publizitatea@anboto.org  
94 621 79 02  
**anboto** komunikabideak



**ETXETXO**  
**G. INMOBILIARIA**  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
**www.inmoetxetxo.com**

**AMBOTO**  
**INMOBILIARIA**  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
**www.inmoduranguesado.com**  
inmoduranguesado@gmail.com

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

**www.inmoduranguesado.com**

**IURRETA**  **2** logela  
**1** komun

**IURRETA.** 2 logela, bainugela bat, sukalde-jangela, egongela, terraza. Bizitzera sartzeko prest. Eguzkitsua.

**115.000€**

**DURANGO**  **3** logela  
**2** komun  
**94** m<sup>2</sup>

**ERRETENTXU:** 3 logela, 2 bainugela, sukalde handia, despentsa, egongela eta terraza. Garajea aukeran.

**198.000€**

**DURANGO**  **3** logela  
**100** m<sup>2</sup>

**SAN IGNAZIO:** 3 logela armairuekin, 2 bainugela, sukaldea eta jangela terrazarekin. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Alokairuan erosteko aukerarekin.

**256.000€**

**DURANGO**  **3** logela  
**2** komun

**PLATERUEN PLAZA:** 3 logela, 2 bainugela, suakldea, egongela, ganbara eta garajea aukeran.

**225.000€**

**DURANGO**  **3** logela  
**1** komun

**TABIRA:** 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa, egongela terrazarekin. Ganbara. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Ikuspegiak. Bizitzera sartzeko prest.

**190.000€**

**DURANGO**  **2** logela  
**1** komun

**ERDIGUNEAN:** 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela, igogailua, bizitzera sartzeko prest.

**130.000€ / NEG.**

**//ETXEBIZITZA ALOKAGAI**  
**ABADINON.** Hiru logelako, duplex handia. Garajea eta trasteroa barne. 750.-€

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**DURANGO.** Eraikin berria. Logela hiruko, azken etxebizitza salgai. 200.000.-€.

**DURANGO.** Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, hiru logela, komun bi, sukaldea, egongela, garajea eta trasteroa. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.

**MAÑARIA.** 3 logelako pisua, komuna, sukaldea, despentsa, egongela, eta ganbara. 80.000.-€. Bizitzeko moduan.

**DURANGO.** Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela, eta ganbara. Bista ederrak

**BERRIZ.** Hiru logelako pisua. Komuna eta egongela ganbara ere badu. Oso eguzkitzua eta merkea.

**DURANGO.** Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbarekin.

**IURRETA.** Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitza. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

**DURANGO.** Hegoalde kalean, izugarritzko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobe.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

**//LURSAILAK SALGAI**  
**ABADIÑO.** 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA.** EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

**//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**  
**ABADIÑO.** Bifamiliarra salgai. 4 Logela, 3 komun, sukaldea, egongela, garajea Oso polita

**ATXONDO.** Marzana. Izugarritzko txaleta salgai. Ikuspegi bikaina, berri berri!!!

**MAÑARIA.** Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO.** Aldape auzoa. Baserria berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

**ATXONDO.** Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobe, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

**BERRIZ.** Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

**//BULEGOAK ALOKAIRUAN**  
**ABADIÑO.** 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

**//GARAJE ITXIAK SALGAI**  
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000.-€ tik aurrera

**//LOKALAK ALOKAIRUAN**  
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.


**//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**  
**MATIENA.** 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

**www.inmoduranguesado.com**

**DURANGO**  **3** logela  
**70** m<sup>2</sup>

**ANTSO ESTEGIZ:** 70 m2 . 3 logela, komuna (berriztuta eta duxarekin). egongela, sukaldea jarrita. Egoera onean.

**160.000€**

**DURANGO**  **3** logela  
**79** m<sup>2</sup>

**DURANGO:** 79 m2, 3 logela, egongela, hall-a, sukaldea jarrita, bainugela (berriztatua) eta balkoia. Guztiz hornituta. Bizitzera sartzeko prest.

**139.000€**

**MATIENA**  **3** logela  
**64** m<sup>2</sup>

**MATIENA:** 64m2. 3 logela, bainugela, sukaldea jangelarekin eta egongela. Argi natural asko etxe guztian.

**112.000€**

**MATIENA**  **3** logela  
**60,30** m<sup>2</sup>

**MATIENA:** 60,30 m2. 3 logela, hall-a, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela bat. Egoera onean.

**110.000€**

**DURANGO**  **3** logela  
**60,6** m<sup>2</sup>

**SAN FAUSTO:** 60,6 m2. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela. Iparralde eta hegoaldera begira, eguzkitsua eta ikuspegiekin.

**82.500€**

**MUXIKA**  **600** m<sup>2</sup>

**MUXIKA:** Maguna Auzoa, baserria, osorik berriztatze. 600m2 , 300m2ko bi solairutan banatuta. 10.000m2 lurzorua.

**75.000€**

**//DURANGO.**  
**ALLUITZ KALEA** 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000€** / E.E.Z=E

**ANDRA MARI** 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 250.000€ **ORAIN 230.000€** / E.E.Z=F

**ASKATASUN ETORBIDEA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F

**ANTSO ESTEGIZ** 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E

**ERRETENTXU** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 205.000€ **ORAIN 198.000€** / E.E.Z=E

**ERRETENTXU** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran

**EZKURDI** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ **ORAIN 300.000 €** / E.E.Z=F

**KURUTZIAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean

**MURUETA TORRE** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua. **245.000€** / E.E.Z=E Garajea eta trastelekua aukeran.

**SASIKOA KALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia igogailua, garajea eta trastelekua. **210.000€** / E.E.Z=E

**//ABADIÑO**  
**Arlozabal** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 €** / E.E.Z=Bidean

**Zeletabe** 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza eta garajea. LEHEN 342.576 € **ORAIN 288.000€/E.E.Z=E**

**//ATXONDO**  
**Arrazola errepidea** 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.=Bidean

**//BERRIZ**  
**Andikona auzoa** Berreraikitze baserria. **460.000€**

**Errotatxo kalea** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. LEHEN 95.000€ **ORAIN 85.000€** / E.E.Z=E

**//ELORRIO**  
**Elizburu kalea** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000€ **ORAIN 169.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

**//IURRETA**  
**Fauste** Baserria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G

**Santa Maña** 3 logela, sukaldea, egongela bainugela trastelekua eta lursailarekin **125.000€/ E.E.Z=G**

**//MATIENA**  
**Txinurrisolo** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F

**//MAÑARIA**  
**Ebaristo Bustintza Kirikiño** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa **150.000€** / E.E.E=Bidean Txokoa aukeran

**//ZALDIBAR**  
**Zalduaran kalea** Banakako etxebizitza. 373m2 inguru hiru solairutan banatuta. 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, garajea eta txokoa. 669m2 inguruko lur sailarekin. **460.000€** / E.E.Z=E

**//ZORNOTZA**  
**San Pedro kalea** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z=Bidean

**// BERRIAK**  
**DURANGO - Kalebarria** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. **82.000€** / E.E.Z=G





iragarki  
laburrak  
.eus

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzako. Erregistratu [www.anboto.iragakilaburrak.com](http://www.anboto.iragakilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

**Higiezinak**  
**ETXEBIZITZAK**  
**ETXEBIZITZAK SALDU**

**Elorrio.** Atiko polita errentan Elorrion. 50 metro karratu. Igogailuarekin. Tel.: 631-12 31 06

**Elorrio.** 70 m kuadroko etxebizitza salgai Elorrioko Argiñeta Etorbidea 20 zenbakian. 3 logeladuna. Beheko solairua. Eraberritze-obra behar du. Tel.: 655066784

**ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN**

**Abadiño.** Abadiñon Mendiola auzoan, lokal bat alokatzen da, orain TXOKO moduan dago, baina beste erabilera batzuetarako ere erabili liteke, adibidez enpresa batzarretarako, biltegi, ostatu eta abar. Umeek jolasteko leku handia dauka eta aparkaleku ederra. Informazio gehiago nahi baduzu deitu 600464411 telefonora. [etxetu53@gmail.com](mailto:etxetu53@gmail.com)

**Durango.** Hiru emakume arduratsu

gara eta gelak alokagai edota San Fauston edo Durangon etxe baten bila gabiltza. Deitu: 644930679

**Lana Formakuntza**  
**LAN ESKARIAK**  
**PERTSONAK ZAINDU**

**Zaintzaile moduan lan bila.** Zaintzaile moduan lan bila nabil. Adineko pertsonak zein haurrak zaintzen esperientzia daukat. Orduka edo barneko langile moduan lan egiteko prestutasuna daukat. Berehalako disponibilitatea. Interesa duenak ondorengo telefonora deitu nazala, gaztelaniaz mesedez: 631 925 525 Eskerrik asko.

**Esperientziadun umezalna.** Kaixo. Irantzau naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

**LAN ESKAINTZAK**  
**ETXKO LANAK**

**Plantxa orduka egiten dut.** Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

**PERTSONAK ZAINDU**

**Adinekoen zaintza lanak.** Adineko pertsonen zaintza lan bila nabil. Eskarmentuarekin. 21 urte ditut. ([gaztelania.jorgebeloorin@gmail.com](mailto:gaztelania.jorgebeloorin@gmail.com))

**Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil.** Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonetara egokitzeko gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzen edota etxeko lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsappz

kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644930679

**Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut.** Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak eta umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuek deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

**Barneko langile gisa lan bila.** Adineko pertsonak (barneko langile) eta haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehalako prestutasunarekin. Tel.: 644558390

**Barneko langilea lan bila.** Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak zaintzen edo haurren zaintza lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehalako

moduan. Tel.: 632705225

**Barneko langile gisa lan bila.** Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu 643727198 telefono zenbakira.

**Erreferentzia onekin lan bila nabil.** Adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko lan bila nabil. Garbiketa orduka edota lanaldi osoan. Tel.: 602895018

**Lan bila.** Adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetan esperientzia duen emakumea lan bila. Erreferentzia onak ditut. Orduka zein lanaldi osoan. Tel.: 631585845

**Bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu.** Durangon 8 eta 10 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Arratsaldeetan martxoaren 20tik maiatzaren 10era bitartean. (Aste Santuan ez) Tel.: 649563492



21. KORRIKA

ASTE HONETAN


KLIKA EUSKARARI

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

**ttap**  
Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:  
[ttap.eus](http://ttap.eus)



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n



## Botikak

**09:00-22:00**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

# Zorion Agurrak

**ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA**



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorian-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorian agurrekin batera.



Zorionak, **June**  
maitia! Martxoaren 31n 6 urtetxo  
dira gure bizitzan  
zaudela. Izugarri  
maite zaitugu!



Durangoko eta Matienako Institutuetako ikasleek ANBOTO bisitatu dute. Irratsaioak egiteko ANBOTOk albisteak erabiltzen dituztenez, ikasle hauek aste-  
kariko lan funtzionamendua ezagutu gura izan dute.  
Kazetari trebe hauekin gure proiektuari buruz gustura  
berba egin dugu. Biba zuek!



Zorionak, **Oihan**  
Egun polita  
pasa familiaren  
ondoan. Segi beti  
bezain alai eta  
zoriontsu. Muxu  
handi bat.



**Liher**, 6 urte bete dituzu. Zorionak zure familiaren partez! Ondo pasa eguna. Musu asko!

## Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 20° / 7°



ASTELEHENA 🌡️ 20° / 6°



EGUAZTENA 🌡️ 9° / 5°



DOMEKA 🌡️ 19° / 6°



MARTITZENA 🌡️ 13° / 7°



EGUENA 🌡️ 7° / 4°



# DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK



Whatsapp bidez  
**Bidali 'ALTA' 688 635 041**  
zenbakira whatsapp  
bidezko mezua bidalita

Telegram bidez  
**Bilatzailearen bidez  
'ANBOTO' kontua  
topatu eta  
jarraitzen hasi**



 **Anboto  
Komunikabideak**

 @anboto

 @anbotokomunikabideak



# "Gastronomian eta kirol munduan ezagutzen dute gehien berakatz beltza"

Berakatz beltzak Koreako sukaldaritzan ei du jatorria. Iñarraiaregik eta Erizek Ardo Saltsanen aurkeztuko dute Ugaon ekoiztutako Euskal Herriko lehen berakatz beltza, bihar

**Xabier Iñarraiaregi Solozabal** (Eibar, 1955) eta **Karlos Eriz Arando** (Elorrio, 1966)  
• Berakatz beltza produzitzen dute

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

2017an, Xabier Iñarraiaregik, bere anaia Jose Luisek eta bien lagun Karlos Erizek 'Barabeltz' familia enpresa sortu zuten. Orduetik, kalitatezko berakatz beltza lortzeko, makina bat proba egin dituzte Leartiker ikerketa zentroaren laguntzagaz. Aurten, pauso bat eman dute aurrera, 1.000 kilo berakatz sartzeko makina eskuratuta. Zapatuan, Ardo Saltsan azokan aurkeztuko dute Ugaon ekoiztutako Euskal Herriko lehenengo berakatz beltza. Ogian zabaldua jateko ore egi-tea izango dute hurrengo pausoa. Erronka, kipula beltza egitea.

**Lehenengo uzta jazo berri duzue.**  
**Karlos Eriz:** Bai. Azken urte bietan, probak egiten ibili gara kamera txiki bategaz, 100 bat burugaz. Leartikerren laguntzagaz eman ditugu pauso guztiak. Iñaki Uriberen ezinbesteko laguntza ere eskertu beharrean gaude.  
**Xabier Iñarraiaregi:** Oso ezaguna da Las Pedroñerasko (Cuenca) berakatz moreagaz egindako berakatz beltza. Baina argi genuen bertako ekoizleekin lan egingo genuela, eta Nafarroako berakatz erabili dugu; aurten, Kanpezuko ekoizle bategaz egin dugu tratua. Gaztela-Mantxako eta Andaluziako berakatz beltza oso ezaguna da. Euskal Herrian lehenengoak gara gu.  
**Nola lortzen duzue berakatz beltza?**  
**X. I.:** Berakatz freskoaren hel-tze edo zahartze prozesu baten

ondorioz. Lehen uzta lortzeko, 51 egunetan izan dugu berakatz kameretan, 70 bat gradutan, eta %80-90eko hezetasun mailagaz.  
**K. E.:** Hartzidura natural baten ostetik lortzen dugu. Kameratik aterata, 20 bat egun utzi behar da, ontziratu aurretik.  
**Harrera ona du?**  
**K. E.:** Horren zain gaude, produktu ezezaguna delako. Gastronomian eta kirol munduan ezagutzen dute gehien. Osasuntsua delako erosten dute batzuek; berakatz freskoaren propietateak bikoizten ditu berakatz beltzak.

**X. I.:** Antioxidatzailea eta energia iturri naturala da, eta kolesterola eta triglizeridoak murrizten laguntzen du, besteak beste.  
**Nolako zaporea du?**  
**K. E.:** Erregaliz antzekoa. Berakatzaren arabera, garratzagoa edo gozoagoa izan liteke. Ez du garraztasunik, ez dator behin eta berriro ahora, eta ez du hatsik uzten. Erabilera asko ditu: okelagaz, arrainagaz, entsaladan... Hori bai, neurrian bota behar da.  
**X. I.:** Gozogintzan ere asko erabiltzen da, edo garagardoa egiteko.



## Berba bitan

- **Plater bat?**  
**Xabier:** Kokotxak  
**Karlos:** Txuleta edo tomate entsalada berakatz beltzagaz
- **Berakatz freskoa ala beltza?**  
**Karlos:** Jatekoaren arabera. Baina, gehiago beltza.
- **Xabier:** Beltza
- **Sukaldari bat?**  
**Karlos:** Emaztea
- **Xabier:** Ama
- **Pelikula bat?**  
**Karlos:** Bienvenido al Norte  
**Martin:** Perfectos desconocidos
- **Astebururako plan bat?**  
**Karlos:** Ardo Saltsan azoka  
**Xabier:** Mendi buelta eta Ardo Saltsan azokara buelta

## Lau hortza

Martin Loizate  
Sarrionaindia  
Ikaslea



### Laissez faire laissez passer

Bat. Herriko zinegotzi bat Alemaniako diktadura naziko zerbitzu sekretuetako kideek zerabilten uniformearekin erretratatu. Ez daukagu umorerik, gauzak kontestutik ateratzen ditugu eta ez eman garrantziarik, biharko plenora gorbatarekin joango da eta.

Bi. Espainiako Vuelta herri-ekartzea lorpen handizat jo dute, gaez Oizeko erre-pideetan Espainiako banderak margotzen ibili diren poliziei stand bat jartzen utzi dietenek jolas parke batean, hurrei metrailetak eta poliziaren propaganda erakusteko. Denak dauka albo-kalteren bat, zer egingo diogu, eta hurrak dira, baina ikasi beharko dute eurek ere... etapa polita, ezba?

Hiru. Herriko (beste) zinegotzi batek bere karguan jarraitzen du, sexu eraso bat medio salatua eta atxilotua izan eta kargurik gabe libre geratu ondoren, ondorio politikorik gabe eta udale-tik soldata jasotzen. Baina feminista hauek existitzen ez diren arazoak asmatzen dituzte, justiziak funtzionatzen du eta kasu isolatuak dira... badaukazu pin more bat?

Faxismoa ez da (beti) kolpeka iritsi, bidea libre utzi diotelako agertu da (kasu askotan hauteskunde bidez). Martxoak 31 beteko dituen honetan parada egokia dugu hausnartzeko faxismoari alfonbra gorriak nork jartzen dizkion eta nork ateak itxi. Faxismoaren banalizazioa eta autoritarismoa esparru guztietan borrokatu behar ditugulako, futbol zelaia-tik lan esparrura, komunikabideetatik hautetsontzie-tara.

www.hipicazelaialai.com

**Zelai Alai**  
HIPIKA ESKOLA  
Zelai Alai Hipika Eskola lurreta Gaztañatza auzoa z/g 48215 lurreta - Tel: 691 746 611

## ASTE SANTUKO TAILERRAK HASTAPENA HIPIKA ESKOLAN

APIRILAK 15,16,17,18 eta 19  
APIRILAK 23, 24, 25 eta 26  
10:00 - 13:00

40€ eguna / 140€ aste osoa

Egitaraua (bi zati ditu):

**TEORIKOA:** zaldiak ezagutzea, hauen jokabideak, nola maneiatu, jolasak, bideo-proiektzioak...  
**PRAKTIKOA:** egunero ekitazio klaseak, askotariko ariketak...

**2x1**  
Igandeetako hastapen klaseetan bi klase jaso eta bakarra ordaindu (30€)  
Igandero 16:30ean (2 ordu)

**ORAIN ESKAINTZA BEREZIA!**